


uk

35. zenbakia / 2002 abendua





KOMIKI SALMENTA - ERAKUSKETAK - FILMAK - TAILERRAK - HITZALDIAK - LEHIAKETAK - MAHAINGURUAK
VENTA DE CÓMICS - EXPOSICIONES - PELÍCULAS - TALLERES - CHARLAS - CONCURSOS - MESAS REDONDAS



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Naufragioak. Javier Balledor.
6. PLAZA. Gabonak, iritzi bi: Aitor Solabarrieta eta ATFAL elkarte.
7. LEHEN ETA ORAIN. Arluze.
8. HERRIZ HERRI. Getxo 8. Leioa 12. Erandio 16. Berango 20.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Zuhaitzen magia. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Elena Irureta. Unai Brea.
30. ERREPORTAJEA. Etxebizitza. U. B.
34. ERREPORTAJEA. Iker Fuentes surflaria. Jokin Aspuru.
38. BIZIMODUAK. Gabonetan lanean.

KULTURA

40. FOTOGRAFIA. Iñigo Azkonaren argazkiak.
44. ZINEA. Manu Gómez eta Oskar Fernández, Zine Klub-eko kideak.
46. MUSIKA. Nazzte Borrazte Band musika taldea eta Jon Etxeandia.
48. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta erreseinak.
50. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
52. BIDAIAK. Okavango ibaiaren delta Gonzalo Iribarnegarayren eskutik.

EUSKARAZ

54. URIBERTSOAN BARRENA. Anjel Mari Peñagarikanori elkarriketa. San Martin jaietako saioak. Algortako Bertsolari Eskola.
58. AKABUKO PUNTE. Eguraldi kontuak, Andoni Llosa. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
60. EUSKARA. Berriak, elkarriketa...

AMAITZEKO

62. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Aitor Elola, puntako sukaldaria elkarizketatu dugu. Non jan? Adibidez, Meñakoz jatetxean. Eta pintxoak? Zeñe tabernan.
66. HOROSKOPOA.
67. KOMIKIA. Gorka Vázquez.
69. FLASH BACK. Algortarrak Plentzian, 1968. Bittor Egurola.
70. AITORPENAK. Estibx Fernández. Eunat Serrano.



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Ameztzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Eunate Serrano
FOTOGRAFIA BURUA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Urtzi Iglesias, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Gonzalo Inbarnegaray, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez
AHOLKULARI GRAFIKOA: Guillermo Almagia
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Edorta Cachorro (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



■ Bizkaiko Foru Aldundia ■

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar

beharrezkoak

ditugu zuen

dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Agur 2002 / agur 2003

Hauxe duzu, irakurle, gure erredakzioan azken hilabete honetan egindako lanaren emaitza, sekula itzuliko ez den 2002. urteko azken alea, UK aldizkariaren abenduko zenbakia alegia. Ez gara geldí egon eta, esaterako, Zumaiaraino joan ginen, han bizi baita **Elena Irureta** aktore handia. Bide batez, ETBk Donostian dituen estudioetan izan ginen baten batek gure bulegoan **Estitxu Fernández** ezagutu nahi zuela adierazi zigulako. Etxerako bidea kostaldetik egin genuen, eta hara! Bakion Algortako **Iker Fuentes** surfalari handia ikusi genuen. Gose ginela-eta denok elkarrekin, **Aitor Elola** sukaldariaren Bilboko *Goizeko Kabi* jatetxe aukera polita zelakoan, harantza abiatu ginen. Bilbon **Iñigo Azkona** prentsa argazkilaria ere ezagutu genuen eta Bartzelonan hartutako irudi batzuk utzi zizkigun. Hau guztia eta askoz ere gauza gehiago aurkituko duzu ale honetan, esaterako, Peñagarikanori egindako elkarrizketa, babes publikoko etxebizitzei buruzko erreportaje sakona...

Bestetik, gogoralarazi nahi dizuegu, ohi bezala urtarilean ez dela UKrik izango, hurrengo alea (berriztatua) otsaileko lehenengo egunetan jasoko duzue etxean.

Beste barik, urte barri on!

UK-ko lantaldea

bestee**ksanak**

“Gaur egungo egia guztiak behin-behinekoak dira”

Salvador Pániker (filosofoa)

“Gizon batek egin dezakeen bekaturik handiena egin dut nik: ez naiz zoriontsua izan”

Jorge Luis Borges (idazlea)

“Gizaki guztiak berdinak dira jaiotzean, baina hori da berdinak diren azkeneko aldia”

Abraham Lincoln (politikaria)

“Bigamia behar baino emazte bat gehiago edukitea da. Monogamia bezalaxe, hain justu”

Oscar Wilde (idazlea)

Gutunak

HERIOTZAREN KORREDOREA URIBE KOSTAN

Hasteko, irakurleari jakinarazo gura geunskio artíkulo hau idaztera eroan gaituen arrazoia UK aldizkariko 33. aleko Uribe Kostako korredoareari buruzko artíkulua dala. Artíkulu honen kritikotasun eza kritikatu gura genuke (zer hoberik?). Ikuspegi partzial bat baino ez ebalako erakusten eta korredoa-rearen aldeko gizartearen atxikimendua lortzeko tresna baino ez zala begitantzen jakulako.

Salatu dagigun proiektu honen atzean ostontzen dana: Azpiegituren garapenaren justifikazino demografikorik eza, EAJren interes ekonomikoak eta jakinarazo ez deuskuezan kalte ekologiko zein arkitektoniko-kultural ikaragarriak (Bolue, Azkorri, Kurtze, Gatzarrine, Ugeraga, baserriak...). Honegaz batera defizit demokratikoak ikusten doguz agintari politikoen aldetik gauzak egiteko orduan.

Honen guztiaren aurrean honakoa proposatzen dogu guk: demokrazia parte hartzailearen beharra gure ingurunea hain era garrantzitsuan eraldatzen daben proiektuen ganean. Erreferenduma bultzatuz hauteskundeetan alderdiek lortutako boterea era despotikoan erabiltzen dabenen aurrean. Herri debatearen beharra. Garraio publikoa hobetzea, autoen kontsumo eta erabilpenaren inguruko gogoeta, natura kaltetzen ez daben garraiobideak bultzatzea eta izadiagazko errespetua oinarri legez hartuta. Ingurunea kaltetu ez eta gure gizartea hobetuko daben alternatibetan sinisten dogulako.

Ekaitz Larrazabal eta Fredi Paia (Algorta)

***Oharra:** ohi bezala urtarilean ez da UKrik izango. Hurrengo alea otsailean jasoko duzue.*



Naufragioak Abran

/ Ez bat ez bi, asko izan dira Abran hondoa jo duten untiak, esaterako goian ikus dezakezuena: Zephyr (1981-01-13). Aitzakia hori hartuta azken 30 urteotako hondoratzeen formato handiko irudiekin erakusketa antolatu dute Algortako Satistegi tabernan. Erakusketa otsaila arte ikusi ahal izango da eta izen handiko fotografoen lanak bilduko ditu: Javier Balledor, Alfredo Aldaia, Oskar Martinez, Mikel Martinez eta Nadar Fotografiak utzitakoak. Antolatzaileek hil berri den Portu Zaharreko Anselmo Arantzta gogoan izan dute, izan ere, urte askoan Anselmok eta bere familiak hainbat salbamendu egin dute Abran. / Argazkia: **Javier Balledor**

[irudia]

[plaza]

Iritzia

Gabonak gainean ditugu, urteroko kontu bera: bonbilak kaleetan, opariak... Gabonei buruzko gogoeta bana eskatu diegu Aitor Solabarrieta Getxoko abadeari eta Atfal, Sahara Aldeko Getxoko elkarteari.

Gizatasunaren adierazpena

Gure hiztegian, kalean eta etxean, hainbat pertsonaren ahoan behin baino gehiagotan maitasuna, bakea, zuzentasuna eta elkarlaguntzaren hitzak entzun izaten ditugu. Zenbat aldiz gure buruari galdetzen diogu zer ete diren hitz honeik! Eta konturatzen gara ezin dugula hitz honeen esangura guztiz zehaztu, gizakien bizitzako sentipen eta jarrerak baitira. Hau da, gizon-emakumeen bizitzan ditugun hainbat jarrera eta sentimendu hitzek ez dituztela guztiz azaltzen. Eta honela gertatzen da, nire ustez, gaurko gaiarekin, Gabonekin. Lagun batek esaten zidan: “Zer ete dira gabonak? Ziur inork ez dakiela”.

Aldi honetan, gabonak deitzen ditugunak, gure barruan, gizon-emakumeok, bizi ditugu hainbat sentimendu guztiz zintzoak. Hasieran azaldu dudan bezala, gabon aldian, maitasuna, bakea, zuzentasun eta elkarlaguntza bata besteari emoteko gehiago egoten gara prest. Bizi duguna ez delako kanpoko gizarteko errito bat bakarrik, gehien bat bizi duguna da gure gizatasunaren adierazpena. Hau da, urtean zehar, gure bizitzan erritmo batzuk lotuta ditugu: jai eta ospakizuna, lana eta ahalegina, tristura eta dolua, eta abar. Eta erritmo hauetan, gabon aldian, baita ere sartzen dira besteenganako gure gizatasunaren ezaugarri eta adierazpenak. Horregitik egun horreetan gehiago azaltzen dugu bata besteenganako ulermena, errespetua, bakean konpontzea, maitasuna eta laguntza behartsuei.

Arroza eta dilistak

UK-k iritzi artikulua eskatzen digu Gabonak eta kontsumismoari buruz GKE/ONG baten ikuspuntutik. Lehenengo ideia flash baten moduan agertzen da gure buruan, errefuxiatuen egoera (aurten iazko laguntzaren %10 hartuko dute bakarrik, hau da 213 kaloria pertsonako eta eguneko, ACNUren esanetan) eta hipermerkatuetako pasiloetan ikusiko ditugun gaboneta-ko produktuez betetako “karro” erraldoiak alderatu. Baina momentu horretan konturatzen gara edozer esateak eta edozer idazteak ere ez duela ezertarako balio, ez ditugula zuen/gure ohi-turak aldatuko. Gabonak ez zaizkigula gustatzen aitortzen dugu, ez dugula sinesten Gabonetako izpiritu horretan, baina hala ere gabonetako martxan apuntatzen gara, lagun arteko afari eta parranda, Gabonetako loteria, opariak erosi behar konpultsibo horretara...

Errefuxiatuen kanpamentuetan izan garenok beti aurkitu ditugu ate guztiak zabal-zabalik, beraien arroza eta dilistak jan

Baina, baita ere, esan behar da gure gizartean eta gizon-ema-kumeengan bakarrik ez direla azaltzen sentimendu zintzoak egun hauetan. Gauza askotan gertatzen den bezala, batzuk, haien probet-xurako, azaldu ditugun gabonaldiko sentimendu zintzoak ustiatzen saiatzen dira. Eta adibide bezala, askotan esan eta ikusten dugun kontsumismoa, alferreko gehiegizko erosketak, hainbat diru gastatzea janari eta edarietan, eta abar.

Horregatik, sinisdunon ikuspegitik, lehenengo eta behin esan behar duguna da gure ospakizunaren mamia edo izatea, sentimendu zintzo guztien iturria, guk jartzen dugula Jesus, Jainkoaren Semearen jaioeran. Hau da sinisdunon ospakizunaren erdigunea. Eta hemen-dik dario besteenganako, gure neba-arreba diren gizon-emakumeen-ganako, gure bihotz ona eta laguntza. Horregatik, gehiegikeria guz-tiak, gehien bat gure buruari eta ez besteen laguntzarako, zaintzen ahalegindu behar dugu.


Amaitzeko, argi agertu nahi dudana hau da: gizakien gehiegi-keriak ez dagiala ilundu egun honeetan benetan ospatzen eta sentit-zen duguna: Jainkoak, Jesusegan gizon egiteaz, emon digun giza iza-teko bidea. Hau da, gure sentimen eta jarrera zintzoen lanbidea. 4

Aitor Solabarrieta (Getxoko abadea)

ditugu, lurrean egin dugu lo, komunik gabe, urik gabe, fluores-zente baten argipean jokatu dugu partxisean, orduak eman ditu-gu tetera baten inguruan txisteak botatzen, istorioak kontatzen, elkar ezagutzen. Umeak ikusi ditugu barrez eta algaraz, beti irri-barretsu, beti alai. Beraiek urte osoan daude horrela, guk Gabonak baino lehentxoago gogoratzen dizuegu, morboa piztu nahian, kontzientziak mugiarazteko... Bihotz barneko kezka azalduko zaizkizu/zaizkigu eta laguntza pixka bat ere emango dugu, agian arroz kilo pare bat bialduko dugu eskolara Bizkaiko Sahara Aldeko Laguntasun Karabanen eramateko. Ondo da. Baina kontuan izan urtean beste hamaika hilabete, beste hamai-ka okasio daukazula laguntzeko eta eskualde honetan hainbat eta hainbat elkarte daude zure laguntza hartzeko prest. Orain Gabonak gozatu, zorionak eta Eguberrion. 4

Atfal (Sahara Aldeko Getxoko elkarte)

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / ARRILUZE

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Utzi lekua, mesedez

Aparkatzeko arazoak eguneroko gaia izaten dira tabernetako tertulia inprobisatuetan. UK-k instituzioei zein **herritarrei itaundu** die, eta gaiari buruzko **iritzi desberdinak** bildu ditu. Benetako arazoa, bai ala ez?

Etengabe kexatzen gara geure auto maitea toki egokian lagatzeko dauzkagun zailtasunez. Kontuan hartu behar da, gainera, Getxo dela Espainiar estatu osoan biztanleko auto gehien duen bigarren hiria. Pentsatzekoa da, beraz, aparkamendu arazoak egon daitezkeela. Hona hemen iritzi batzuk.

Andrés Uriarte Getxoko hirigintza zinegotziak eman digu hirian egin diren eta epe laburrean egingo diren aparkalekuen berri. Beraren ustez, *“ez dago aparkaleku arazo handiegirik Getxon, zonalde konkretuetan ez bada”*. Uriartek azaldu digunez, udalak ikerketak egin ditu benetako beharra ezagutzeko, eta horien ondorioa zera izan da: arazoa ez da kaleko komentarioek adierazten dutena bezain larria.

Zelangura be, Areeta eta Erromon beharra dagoela uste dute udal agintariak, eta horregatik hainbat aparkaleku egin dira eta egingo dira. *“Trenbidea zegoen tokian 150 leku egin dira, eta alboan beste gune bat egokitu da 100 autorentzat”*, dio Uriartek. Bestalde, egiten ari diren edo egingo direnen artean, urte biren buruan 1.200 toki gehiago egongo dira Areetan eta Erromon. *“Horietatik 1.100 lurpean egongo dira”*. Gehienak biztanleentzat izango dira, eta jabea edukiko dute. *“Udalak 50 urterako utziko die tokia. Ezin da saldu, lur publikoa delako eta galera handia litzatekeelako udalarentzat”*.

Algortan, berriz, *“100 leku-edo egingo dira epe laburrean, ez da besterik behar”*. Uriarteren ustez, *“jendeak berba egiten du kalean, baina ez da hainbesterako. Kontua da arratsaldeko zapietan poteak hartzen ditugun*



Orain aparkatzeko erabiltzen den Erromoko eremu honetan etxeak eraikiko dira laster

tabernaren aurrean bertan utzi gura dugula autoa, 150 metrora lekua egonda”.

Zenbait iritzi

Christian Reinicke Sozialista Abertzaleetako zinegotzia da Getxon. Beraren ustez, *“ondo daude udalak Areetarako dituen asmoak,*

«Jendeak etxeko ate aurrean utzi gura du autoa, eta hori ezinezkoa da»

aparkatzeko dauden arazoak konpontzen lagunduko dutelako, baina arazoa ez da aparkalekua soilik. Ikuspegi orokorrago batez aztertu beharko litzateke gaia. Autoaren kultura bultzatzen ari da; aparkaleku gehiago eginez, jendea autoa erabiltzera animatzen da”. Reinickek dio garraibide publikoa hobetzeko moduak bilatu beharko liratekeela.

Datu batzuk

- **43.000 ibilgailu** dago Getxon. Bi biztanleko, bat baino gehiago.
- **Kalean 25.000 aparkaleku** daude.
- **1.100 toki** egingo dira Areeta-Erromon epe laburrean
- **100 toki** egingo dira Algortan

Josune Algortan bizi da eta autoa dauka; *“alde batetik, jendeak etxeko ate aurrean utzi gura du kotxea, eta hori ezinezkoa da. Bestetik, ez dakit zertarako ordaintzen dizkiogun hain zerga handiak Udalari, arazoek hor diraute-eta”*. Josune alternatibak erabiltzearen aldekoa da, baina... *“Metroa gaueko 10:30etan amaitzen da astegunetan. Bilbora joan gura badut pelikula bat ikustera, esaterako, autoz joan behar dut derrigorrez”*. m

Zaharrenak lagunduz

8 urtez dirau **Caritas** erakundearen kanpainak



Egitasmoa abiatu zenetik 242 zaharrek baliatu dute

Margarita Coll Caritaseko kidea eta Getxoko hirugarren adinekoei laguntza proiektuaren koordinatzailea da. Berak azaldu digu zertan datzan egitasmoa: *“Boluntarioen bidez egiten den lana da; nahi duenak izena eman eta jende zaharrarekin egon behar du, hori besterik ez”*.

Gaur egun, 135 boluntario daude gutxi gorabehera, 40ren bat agure eta atso-ri laguntza ematen dietenak. Euren lana zaharrekin egotea baino ez da. Paseatu, berba egin... Eskatzen zaien gutxieneko baldintza asteen bi orduz egotea da. Hortik aurrerakoa norberaren gogo edo aukeren

arabera dago. Collekk dioskunez, kanpaina honen hartzaileak bakarrik dauden agure-atsoak dira batzutan; bestetan, seme-alabei lasaitasun une bat ematea da helburua. *“Pentsa Alzheimer duen batetaz. Boluntarioa harekin egoten da eta normalean zaintzen duena kalera irten daiteke kafe bat hartzera”*. Abiatu zenetik, 242 zaharrek baliatu dute Caritasen egitasmo hau.

Boluntario guztiek ikastaro bereziak jasotzen dituzte euren lana hasi aurretik. Une honetan, euren batz besteko adina 50 urtekoa da, Collen esanetan. Laguntza jasotzen dutenena, berriz, 78. m

LASTER GETXOKO UDALTZAINGOA SCOOTER-EAN IKUSIKO DUGU HERRIKO KALEETAN

Orain arte erabili dituzten zilindrada handiko motorren ordeez, Getxoko Udaltzaingoak scooterrak edukiko ditu, epe laburrean, kaleetatik ibiltzeko. Neurri honekin udaltzain guztiek motorrez ibili ahal izatea gura dute udal agintariak; izan ere, orain arteko motorrekin gutxi batzuk baino ezin zitezkeen ibili, prestakuntza berezia behar da-eta haiek erabiltzeko.

Berriekin, aldiz, edonor ibil daiteke, arinak eta erabiltzeko errazak direlako. Alkatearen berbetan, kalean prebentzioa handitzeko balioko du motorren aldaketak. Orain arte motorraz zebiltzanek jantzi bereziak eroan behar zituzten, kaletik ibiltzeko desegokiak.

Guztira sei scooter erosiko dira, 30.000 euro kostatuko direnak (5 milioi pezeta gutxi gorabehera).

Udaltzaingoak erabiliko duen scooterra



cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

Sahara lagunduz

dirua eta janaria

biltzen ari dira herrian

Joan den azaroaren 23a Sahara Eguna izan zen Getxon. Eta, hain zuzen, egun horretan hasi zen Saharako errefuxiatuentzako janari biltzeko helburu izango duen kanpaina. Bizkaiko hainbat herritan aurrera eramaten ari den ekimena da hau (Uribe Kostan, esaterako, Leioan ere egi-ten ari dira), eta, Getxon, Atfal elkarteak dauka horren ardura.

Itxaso Fernández elkarteko kideak azaldu digunez, *“usteltzen ez diren jakiak eskatzen ditugu: pasta, arroza, olio...”*. Hainbat arlotan landuko da kanpaina; herritar xehei ez ezik, supermerkatuei eta eskolei ere egingo zaie eskaria. *“Iaz 43 tona bildu genituen, eta aurten kopuru hori gainditzea espero dugu”*.

Jakiok biltzeko azken eguna datorren urteko urtarilaren 31 izango da. Batutakoa kamioiz bialduko zaie saharar errefuxiatuei. Kamioiak erosi behar direnez, dirua ere eskatzen ari dira, eta horretarako kontu bat egokitu dute. Informazio gehiago lor daiteke honako telefonoetara deituta: 655-74 06 81 edo 658-75 13 59. m



Saharar umeak Tindouf-eko kanpamenduetan, bazkalorduan



Opening-eko ateak itxita daude udaz geroztik. Argazkian, Algortako egoitza.

Opening > Ikasle ohien komeriak

“Guri inork ez zigun esan kreditu bat eskatzen ari ginenik”

Dagoeneko itsaso bete tinta erabili da komunikabideetan Opening ingeles akademiaz jarduteko. Ez dugu ezer berririk gehituko, beraz. Hala eta guzti, Getxon akademia horretan zebiltzan chunka ikasleen egoeraz zeozter gehiago jakin gura izan dugu, eta horretarako Leire Labeaga ikasle kalte-tuarekin jarri gara harremanean. *“Algortan behinik behin 200 ikasle baino gehiago ginen, nik uste”*, dio Labeagak. Guztiek, jakina, arazo bera dute orain; euren ikasketak etetea ez ezik, jasotzen ari ez diren zerbitzua ordaintzen ere jarraitu behar dute.

Labeagak, adibidez, hilero 78 euro ordaindu behar ditu abendura arte.

“Guk ez genekien kreditu bat eskatzen ari ginenik, inork ez zigun esan”. Ordaintzeari utziz gero, moroso zerrenda batean sartuko lituzkete. *“Hala ere, nik badakit Getxoko batzuek gehiago ez ordaintzea erabaki dutela; isuna ipini diete, eta epaiketa izango dute”*, dio Labeagak. Bera finantza-etxearekin harremanean jarri da –Galizian daukate egoitza, eta hara deitu behar izan du–, arazoari irtenbidea eman nahian, baina oraindik ez du erantzunik jaso. m


Aurrekontuak azalduz

Getxoko Udalak 2002ko aurrekontuak zertan gastatzen diren herritarrei azaltzea erabaki du. Horretarako, hiritarrei 30.000 orritxo bialduko zaizkie (batzuek jasoko zenuten dagoeneko), buzoian utziz. Aurrekontua 85 milioi eurokoa da (1.400 milioi

pezeta baino gehiago). Horietatik, orritxoan azaltzen denez, %20 ingurugiroa zaintzeko erabiltzen da. Beste %20 bat, giza zerbitzuetarako; %15, kultur-ekimenetarako, eta 470.000 euro euskalduntzerako. Adibide batzuk baino ez dira. m

Komiki Azoka egingo da

Areetakoa lehen edizioa izango da



Komiki azoka iragarriko duen kartelaren xehetasun bat

Getxoko Kultur Etxeak lehenengo komiki azoka antolatuko du abenduaren 13, 14 eta 15ean. Areetako geltokiko plazan 2.500 metro-koadroko aterpea jarriko dute ekintza ezberdinak burutzeko. 30 stand baino gehiago jarriko dira komikiak saldu eta erakutsi ahal izateko. Honez gain, erakusketak, aurkezpenak, tailerak, makilajea, mahai inguruak eta zine proiekt-

zioak egingo dira. Erakusketei dagokienez, Calpurnioren *“25 años de El Jueves”* eta INJUVEk antolaturiko lehiaketan irabazi dutenak nabarmendu behar dira. Azokaren sarrerarekin, ekintzetan parte ahal izateko aukeraz gain, komiki-aldizkaria oparituko da. Aurtengo kartela Koldo Serrak diseinaturikoa da, M. A. Martin marrazkilariaren laguntzaz. m



Getxolandia

abenduaren 21etik urtarilaren 5era

Gabon hauetan ere Getxoko umeek gozatzeko aukera edukiko dute, eurentzat beren-beregi atondutako **Getxolandia** parkean. Areetako geltokiko plazan egongo da kokatuta, eta egunero zabalduko da, izenburuan adierazitako egunetan, abenduaren 25ean eta urtarilaren 1ean izan ezik. Goizeko 11etatik eguerdiko 2ak arte eta arratsaldeko 5etatik gaueko 9ak arte egongo da zabalik. Abenduaren 24an eta 31n, berri, orduete lehenago itxiko da arratsaldez. Sarrera 2,40 euro izango da umeentzat, eta 3 euro hain ume ez diren gaztetxoentzat.

AGENDA

Komikia

Abenduaren 13tik 15era, Areetako geltokiko plazan, I Komiki Azoka. Tailerrak, filmak, mahainguruak, erakusketak eta komiki salmenta. 11:00-14:30 eta 17:00-21:00.

Magia

Abenduaren 14an, 22:00etan, eta 15ean, 19:30etan, Getxo Antzokian, Juan Tamariz magoaren *Magia Potagia* ikuskizuna.



Kontularien kluba

Abenduaren 13an, Algortako Kultur Etxeko areto nagusian, 19:00etan. Ipuinak kontatu zein entzun nahi dituztenentzat.

Erakusketak

Abenduaren 2tik 16ra arte, Emma Viguriren oleo erakusketa, Erromoko erakustaretoan. Orduetgia: 11:00-13:00 eta 18:00-21:00. Zapatuetan, 11:00-13:00. **Abenduaren 3tik 14ra arte**, Asociación Vasca de Meninos de Rúa. Algortako erakustaretoan. Orduetgia: 10:00-13:00 eta 18:00-21:30. Zapatuetan, 10:00-13:00.

Abenduaren 17tik 28ra arte, *Acnur: 50 urte* erakusketa. Algortako erakustaretoan. Orduetgia: 10:00-13:00 eta 18:00-21:30. Zapatuetan, 10:00-13:00.

Abenduaren 18tik 31ra arte, Marta Rodríguez zeramika txotxongiloak. Erromoko erakustaretoan.

Antzerkia

Abenduaren 20an, Entre Mujeres konpainiaren *Tierra* antzezlan, Getxo Antzokian. 19:00etan.

Altzagarentzat eraikin berria

Ondiz-Altzaga **ikastola egoitza barik** dago iaztik. Euren betiko eraikina berriztatu behar dute, baina **lanak** urtebeteko **atzerapenez** hasiko dira. Bitartean, beste ikastetxe batek **utzitako tokian** egiten dute euren lana

Ondiz-Altzaga ikastola eraikin berriaren zain dago. Hainbat urteko negoziaketen ostean, azkenik 2001eko otsailerako iragarri zituzten betidanik eduki duten egoitzaren berrikuntza-lanak, baina akats batek dena geldiaraztea eragin zuen. Datorren otsailean hasiko da, hortaz, berrikuntza. Gaur egun, Artatza ikastetxeak utzitako solairu batean moldatzen dira, Begoña Amezaga zuzendariak UKri azaldu dionez.

1993an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sare publikoan sartzeko eskaintza egin zien ikastolei. Batzuek onartu egin zuten, beste batzuek ez. Prozesu hartan, ordura arte ikastola bakarra zena, Altzaga, bitan banatu zen: alde batetik, Kukularrako egoitza, Erandion; bestetik, Ondiz, Leioan. Bigarrenak publiko bihurtzea erabaki zuen, eta ondorioz, bere eraikina, bide bera hartu zuten ikastola guztiena bezala, ondare publiko bihurtu zen.

“Harrezkero, mantenu-lanen ardurua udaltara igaro zen”, dio Amezagak, “baina udal batzuek legearen kontra agertu ziren, ez zutelako ardurua hori nahi”. Ondizen kasuan, konponketa asko behar zituen eraikinak, eta Leioako Udalak ez zuen gura halako baldintzetan zegoen eraikin baten mantenuaren erantzukizunik.

Ikastola “berria” Amezagak dioenez, “negoziaketa luzeak izan ziren”. Azkenik, hainbat akordio lortu eta desegin ostean, Hezkuntza Sailak ikastola-



Goian, Begoña Amezaga. Behean, Ondiz-Altzaga ikastola.

ren eraikina berriztatzeko konpromisoa hartu zuen orain lauzpabost urte. “Erakin nagusia guztiz berria egingo dute. Egitura mantenduko dute, hau da, hormak eta abar, baina gainerakoa goitik behera aldatuko da”.

«Ondo moldatzen gara hemen, baina ez da gure etxea eta ez da berdin»

Besteak beste, ikastola berriak solairu bi gehiago edukiko ditu.

Bigarren ikasturtea betetzen ari da Ondiz “erbestean”. Amezagak esan digunez, “gure asmoa hemen ikasturte bi ematea zen, baina atzerapenarekin hiru izango dira”. Izan ere, joan den otsailean hasi behar ziren lanak, baina akats tekniko bat topatu zuten



azken orduko berrikuspen batean eta dena atzeratu behar izan da. Bitartean, gonbidatu moduan jarraitu behar. “Ondo moldatzen gara, baina ez da gure etxea eta ez da gauza bera, zer esanik ez”. Ikastolako zuzendariak gehitu du egoerak kalte egin diela, matrikulazio kopurua jaitsiaraziz. m



Metroaren alboan dago geltoki berria

Geltoki intermodala Leioan

Hainbat garraiobidek **erabili** ahal izango dute

Atzerapen handi samarraz bada ere –iazko udarako egon behar zuen amaituta– laster leioaztarrek geltoki berria izango dute erabilgarri. Geltoki intermodala, hain zuzen. Metrokoaren ondoan dago, eta, izenak dioenez, hainbat funtzio izango ditu. Batetik, autoentzat aparkalekua edukiko du; horren helburua zera da, metroa erabiltzen dutenak bertaraino autoz ailegatu ahal izatea. Kontuan izan

behar da Leioan metroa hirigunetik urrunegi dagoela. Beste solairu batean (eraikinak hiru ditu), autobus geltoki bat eta bizikletak uzteko leku bat egongo dira. Gainera, etorkizunean tranbia ere abiatuko da bertatik. Egitasmo hori Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak bultzatu dute, campusaren eta hiriaren arteko komunikazioa hobetzeko asmoz. m

GAZTETXEA KOLOKAN

Joan den hilean Udondoko gaztetxeak bigarren urteurrena ospatu zuen, hamaika ekitaldi antolatuz. Argitu behar da, hala ere, egoitza berriaren bigarren urteurrena izan zela, guztira sei urte daroez-eta “Leioan okupazioa egiten”, bertako kide batek adierazi digunez. Gaztetxeok urteurrena aprobetxatu gura izan dute beren egoera salatzeke. “Oraingoz ez dugu salaketa ofizialik jaso”, diote, “baina badakigu Udal Plangintzan aurreikusita dagoela orain gauden tokian zerbait erakitzea”, hau da, “bota egingo gaituzte, beste barik eta gure iritzia itaundu barik”. Gaztetxeok errespetu gehiago eskatzen dute: “Hemen Leioako 30 lagun biltzen gara egunero musutruk behar egiteko. Sekulako giroa eta ekintza ugari egoten dira, eta inguruko herrietako jende asko etorten da”.

Leioako gaztetxeo sarrera



SATISTEGI

CAFE



ADITUAK GARA

PINTXO ETA

BOKATA

BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA



KURKUDI

LIBURUDENDA

Euskarazko

irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA

T: 944 913 402

AGENDA

Gabonak 2002

Abenduaren 24an, Olentzero.
17:00etatik aurrera, kalejira
Lamiakotik abiatuta. 19:00etan,
harrera Sakonetako kiroldegian.

Umeentzako antzerkia
(euskaraz)

Abenduaren 26an, Porpol konpai-
niaren “Leire hasiberria”.
18:30etan.
Abenduaren 27an, Ados konpai-
niaren “Kokoroko”. 18:30etan.
Abenduaren 28an, Markeliñeren
“Manbru”. Eguerdiko 12:00etan.
Emanaldi guztiak Kontserbatorioko
Auditorioan.

Erakusketa

Abenduaren 8a arte, Artatza
Jauregian, desagertzeaz dauden ani-
maliei buruzko *Fauna mehatxupean*
erakusketa ikusgai.



Zirkoa

Urtarrilaren 2tik 6ra (biak barne),
Erresuma Batuko *Swamp Circus Theatre*.
Emanaldiak egunero,
16:30 eta 20:00etan. Urtarrilaren
2an, 20:00etan soilik. Goizeko
11:00etan, zirko-tailerrak izango
dira egunero bi orduz.



Ana Torrontegi, estankoko mostradorean

Ana, estankokoa

Amak 1931n hasitako negozioari **eusten**
dio Ana Torrontegik, orain bakarrik

Betiko leioaztarra dugu Ana Torrontegi
Andrés, gaur egun Algortan bizi den arren.
54 urte ditu, eta 14rekin hasi zen beraren
amak, Magdalenak, 1931n irekitako estan-
koan lanean. “*Edade harekin ez nintzen luze*
egoten, eskolara-eta joaten nintzen, baina
egon egoten nintzen”, gogoratzen du. Garai
hartan estankoa ez zegoen gaurko lekuan.
“*Hotel Hogarren aurrean dagoen etxetxo bate-*
an eduki genuen, eta duela hamahiru bat urte
ekarri genuen hona, Sabino Ananara”.

Estankoa eta gehiago

Bitartean, estankoa ez ezik, denetariko den-
da ere izan zen Magdalena eta Anarena:

“*Jatekoa izan ezik denetik saltzen genuen.*
Estankoa, mertzeria eta ez dakit zenbat gauza
gehiago zen aldi berean”. Hura ere amaitu
zen, ordea, eta azkenean estanko hutsean ge-
ratu zen berriro. Gero, egoitza aldatu zuten,
gaurko lekura eroanez. “*Amak jarraitu egiten*
zuen, artean, hona etorri ginenerako”, dio
Anak. Gaur egun, berak bakarrik hartzen
ditu bezeroak, “*semeen laguntzaz noizean*
behin”.

Leioa herri txikia zeneko garaiak gogora
datozkio Anari: “*Gaur egun jendeak erosi eta*
ospa egiten du, baina orduan, dendara etort-
zen zenean, berbetan geratzen zen. Ia fami-
liakoak bezala ziren bezeroak”. m

Foto zaharra > Txahal albinoa



Leioa Atzo eta Gaur taldeak utzitako argazkia

Leioa Atzo eta Gaur taldekoek bere ga-
raian utzi zizkiguten argazkietatik, Ondiz au-
zoan hartutako hau dakargu oraingo hone-
tan. Bueno, Ondiz edo “Ondis”, baserritarra-
ren atzealdean ikusten den errotulutxuak
dioenez. Horrek argazkiaren adinaz argibi-

detxu bat emoten digu; Francoren denbore-
takoa bada, behinik behin.

Betidanik baserriko bizimoduari lotuta-
ko auzoa izanik, ez da abererik falta izan ber-
tan. Ez da harritzekoa, beraz, hainbeste behi
eta txahalen artean bat irudikoaren modukoa

izatea. Behi albinoa esaten zioten honi, eta
egia da zuri samarra dela, baina zalantza dau-
kagu albino-albinoa edo, beste barik, beltzu-
ne gutxikoa ote den. Beharbada lixibaz gar-
bitzen zuten, auskalo. Esnea ere zuriagoa
emango ote zuen? m

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94

LAIK

Taberna

Tlf. 94.6760328

Bentatxu, 2
48600 - Sopela

udondo

taberna

zatoz!

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Transgenikoak hizpide

Enpresa handien mesedetan ari direla transgenikoak bultzatzen, eta nekazari zein **kontsumitzaileentzat** mesederik ez eta **kaltea** dakartela ohartarazi zigun **Helen Groome**k Lutxanako kultur jardunaldietan.

Lutxanako Keli taldeak antolatutako kultur jardunaldietan, transgenikoei buruzko hitzaldia eman zuen EHNE sindikatuko Helenek eta era horretako produktuak ez erabiltzeko eskubidea aldarrikatu zuen.

Enpresa batzuek interes handia dute transgenikoak merkaturatzeko eta kanpaina bortitzak egin dituzte munduko gosetea konpontzeko modua dela esanez.

Horren aurrean, gezurretan ari direla diosku Helenek; izan ere, gehien produzitzen direnak ganaduentzako jakiak dira: artoa eta soja, batez ere, kotoia eta koltzarekin batera. Bestalde, Britainia Handian oraintsu argitaratutako txosten batek azaltzen duenez, transgenikoen laborantzak ez dira errentagarri, bestelakoak esaten ari badira ere. Eta nekazariarentzat enpresekiko menpekotasuna eta zorrak areagotu egiten dira, haziak eta



“Transgenikoak nekazaritza ekologikoaren etsai dira”


herbizidak enpresen esku daudelako. Genetikoki eraldatutako organismoek inguruan zelako eragina duten aztertzeko ere ezer gutxi egiten omen da: ingeniari-tza genetikoa inbertitzen denetik %1 baino ez da ondorioak aztertzeko erabiltzen. Zulo beltza dela esan dezakegu. Eta ezagunak diren arrisku eta kalteak ezkutatzen ari dira: kutsadura transgenikoa, ganaduei eragindako osasun arazoak, produktu kimikoetan sorrarazitako menpekotasuna, eta abar. Adibide modura, Nafarroan ereindako arto transgenikoak inguruan landatutako arto ekologikoan eragin duen kutsadura transgenikoa azaldu zuen Helenek. Izan ere, polena batetik bestera doa airean, eta oso erraz kutsatzen dira bestelako laborantzak. Ondorioz, ezin ekologikotzat saldu eta kontsumitzaile ekologikoek ezin erabili: transgenikoak ekologikoa galarazten du.

Eta norena da erantzukizuna? Baina kutsatzaileek ez dute eragindako kaltearen erantzukizunik. Irabaziak enpresentzat, eta arriskuen erantzukizuna norentzat? Gaur egun Europan indarrean den direktiba baten arabera, nekazariak eta abeltzainak eurak dira ekoizten dituzten produktuen erantzule, eta horretan bat dator Helen. Baina enpresen erantzukizuna ere eskatzen du, izan ere, sarritan, etiketetan ez baita azaltzen zeintzuk diren osagaiak eta nekazari-ek jakin ere ez dakite zelako pentsu, ongari eta abar erabiltzen ari diren.

Etiketatzeko egokiaren beharra azpimarratu du eta gaiaz kezkatuta daudenei etiketak ondo begiratzeko gomendioa eman. Hala ere, Estatu Batuetatik datozen jakietan (esne-gaiak eta artoak) ezin da ziurtatu transgeni- korik duten ala ez. ^m

Pertsonaia > Pepe Rayo

“Dirua emanda ere ez dut Erandio aldatzen”



Argazkian, Pepe Rayo

Peperen nortasun agiria iruzur hutsa da. Agiriak aipatzen duena ez du Peppek onartzen. José Garcia Hurtado izenagaz ez du inork ezagutzen eta berak ere ia-ia ahaztuta duela esan digu. 39 urte duela dio paperak baina guk beti igual-igual ikusten dugu. Bere bizitza hitz batez laburbiltzen da: “Musika”

Bariku gauean egon gara Peperekin eta garagardo baten inguruan istoriotxo batzuk kontatu dizkigu. Badaki ederto musika talde baten tresna guztien soinuak bere abotsarekin imitatzen: “Sei urteko ume koxkorra nintzela hasi nintzen tresna guztien doinua imitatzen”.

José Garcia Hurtado ea nor den galdetu diogunean irribarretsu erantzun digu: “Nik ere sarri askotan ez dakit. 10 urte nituen koa-drilakoek Pepe Rayo izengotia ezarri zidatenean. Pepe Tris edo Pepe Rayo izan zuten aurretik. Biek rock kontzertuetara joateko aitaren-gandik ihes egiteko nuen abilezia adierazi nahi zuten”. Musikazale amorratu baten pausak dira Peppek eman dituenak musika munduan. Bere lehenengo kontzertuak lagunekin institutuko patio bazterretan, taberna txokoetan, eta entzuteko prest agertzen zuen edozeinen aurrean eskaini zituen. 22 urterekin oholtzara igo zen lehenengo aldiz Baxo Axpe taldearen eskutik. Haiekin agertu zen Erandio Antidroga kontzertuan eta gero Astrabudua eta Lutxanako jaietan.

Orduko Erandio osoan ezagunak ziren bere kanta ospetsuenak: *Piojos en salsa verde*, *Viejas cotorras* eta *Caminando por la calle Jado*. Harrezkero, leku askotan ibili da bere musika eskaintzen, eta lagun min handiak egin ditu musika mundu honetan. Erandion sortzen diren musika talde gehienek bere lekutxo utzi izan diote kontzerturen batean: “*Fumas Iskariote* taldeko lagunekin Gironan, eta Ber-

«Erandion oso ezagunak ziren *Piojos en salsa verde*, *Viejas cotorras* eta *Caminando por la calle Jado* kantak»

garan ere, jo nuen. Euskal Herriko hainbat gaztetxetan “Seis metros bajo tierra” taldearekin egon naiz. Barakaldon, orain desagertu La Catrena tabernan Manolo Cabeza Bolorekin ere jo nuen. “Birmor” eta beste hainbat talderekin ibili naiz”.

Elkartasun eta aldarrikapen guztiekin bat egin du Peppek eta horrela drogaren aurkako kontzertuetan eta errausketaren aurkakoetan ikusi dugu. Errausketaren aurkako borroka da bere azken kantaren gaia.

Bizitzaren gorabeheraz galdetu diogunean ezin dela kexatu aitortu digu: “Familiak Extremadurara eramanez ninduen baina nik nahiago izan dut Erandion geratu, hemen ditut lagunak eta nola edo halako bizimodua. Dirua emanda ere ez nuke Erandio aldatuko”

Amaitzeko Peppek Uribe Kosta osoa agurtu nahi izan du. “Seguru asko nire hurrengo hitzordua Deustuko Gaztetxean izango da, hortxe duzue aukera nirekin egoteko, eta hala eta guztiz ere, eskerrik asko elkarrizketatzeko honengatik”, esan digu. ^m



ATXAZPE

Mendi Taldeak lokal berriak inauguratu ditu. Astrabuduko erdigunean kokatuak eta lehengoak baino dezente itxurosoagoak direnez, bazkideen arteko harremanak erraztuko dituela-eta, pozik daude zuzendaritzako taldekideak. (Argazkian, Atxazpeko kideak herriko alkatearekin egoitza berriaren inaugurazioan).



Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net


Inportaziozko zerbezaritza onenak

Terraza zabala



basartena

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ



GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Harrobiko azken bitxiak


Erandioko **emakumezkoen futbol taldea** osatzen duten 24 jokalariaik **jo eta ke** dabilta Ategorri futbol zelaian entrenatzen Asier Zubiaurreren aholkuak jarraituz. Aurten **lehenengo denboraldia** dute

Futbol mundua eta emakumezkoen mundua galaxia ezberdinetakoak izan dira historian zehar, eta oraino horrela dela dirudi. Badira 100 urte baino gehiago Inglaterrako gizonezko batzuk, **Bizcaya** hartan, praka motzetan baloi baten atzetik korrika hasi zirenez geroztik, baina oraindik ere emakumezkoak baloia jaurtika ikustea nolabaiteko albistea da.

Oraingoa, kasu, Erandioko emakumezkoen futbol talde berriari dagokio, bere 24 jokalariai gazteak Ategorri futbol zelaian jo eta ke baitabilta estreinako denboraldian, zelan ez, ditzosozko gola sartu guran.

Bego, ekipoaren burua, sasoiko heldu da elkarriketara. Astelehena da eta azkeneko norgehiagoka larunbatean izan dute, Santurtziko Peña Athleticen kontra. Arauzko 90 minutuen ostean banakoa islatu zuen markagailuak, baina emaitzak emaitza, Bego ez dago ohituta kazetarietara erantzuten, kazeta bera herrikoa izan arren. Horrela bada, galderarik egin barik, has dadila bere sentsazioak azaleratzen: *“Ez nuen inoiz pentsatu Ategorrin jokatu ahal izango nuela. Eta, ufi, lehenabiziko partidari urduri egon nintzen oso”*.

Taldea, entrenamenduak
Aurton txuri-urdinez jantzi baino lehenago jokalariai gehienek bazuten nolabaiteko eskarmentua baloiarekin, areto-futbolearen bazen ere. Iaz haietariko batzuek Alzaga Ikastolako taldearekin txapela eta guzti jantzi zuten, baina orduko eta gaurko entrenatzaile Asier Zubiaurrek argitzen duenez, areto-futbolaren eta futbolaren arteko alde



Argazkian, Asier Zubiaurre atzean taldeko jokalariai dituela

handia dela-eta, aurtengo denboraldiko helburu nagusia jokalariai futbol zelai handiaren neurrietan taxuz egokitzea da, bai fisikoki bai teknikoki.

«Jokalaria guztiak partiduetako hamaikakoan, edota deialdian sikiera, sartzeko irrikitan egoten dira»

Asteko hiru egunetan entrenatzen da taldea, Alzaga Ikastolako futbol zelaian, Zubiaurren aholkuak jarraituz, bai eta beste hiru teknikarienak ere: Pedro Rodríguez, Jonathan Espiniella eta Richar Millán. Eta hasiera bateko entrenamenduak nolabaiteko jokoak baziren ere, denboraldia aurrera doan heinean, 24 jokalariai arteko lehia-

kortasuna gero eta “nabariagoa” da, den-denean partiduetako hamaikakoan, edota deialdian sikiera, sartzeko irrikitan daude eta. *“Horregatik gogoz jarduten dugu”*, dio Begok.


Harrobiko azken bitxi txuri-urdinak dira 24 jokalariai hauek. Auskalo baten bat, Ategorrin leunduz, zuri-gorri bihurtuko ote den. Behintzat, mutilek bezalaxe, amets egin gura dute. m

Taldeakideak

- **Atezainak:** Esti, Irati.
- **Atzelariak:** Sheila, Arrate, Bego, Eider, Nini, Adaia, Frida, Naiara, Aiora.
- **Erdilariak:** Andrea, Janire, Amaia, Odei, Marta, Maite, Nerea, Oihane, Garazi, Aintzine
- **Aturrelariak:** Unañe, Irati, Itziar.

Irailaren 23 plaza

Herriko **enparantza** gutxi aldatu da azken **hiru mendeotan**



aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO
URTEURRENA

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Villa de Plentzia, 18 behea
48930 Las Arenas | Getxo
Bizkaia

Tel.: 94 464 51 66
Fax: 94 480 54 70
e-mail: vasa@euskalnet.net

Gure dendak

Azken hamarkadan merkatarien **eskaintza** erabat **zabald**u da herrian. Oso urrunekoa ez den **garai batean** gauza asko eta asko egiteko herritik **kanpora jo** behar zen. Orain, badago aukera gehiago

Berangon, betidanik, tabernek, janari dendaren batek eta beste dendaren batek osatu dute merkataria eskaintza. Aurton bertan Udalak egindako inkesta baten emaitzek adierazi zutenez, herriko biztanleek Berangoko hutsunerik handienetakotzat daukate denda falta. Hala ere, azken hamar urteotan Berangok jasan dituen aldaketetako bat orain arte ez zeuden zenbait denda mota zabaldur izana da.

Hamaika enkargu egiteko garaian, aldameneko herriren batera –normalean, Algortara– joan behar izaten dute, tradizioz, berangoztarrek. Herrian hainbat denda mota ez izateak hori dakar eta. Baina azken hamar urteotan zertxobait aldatzen ari da hori. 47 denda edo negozio zabaldur dira denbora tarte horretan Berangon. Horietako batzuek eskaintza berria ekarri dute.

Multzo horretako denda gehienak Sabino Arana kalean agertu dira. Duela hogeit urte sekula pentsatuko ez bagenuen ere, Berangon orain autoeskola, informatika-denda, albaitaria, hizkuntz-akademia, inmobiliaria, loradenda... topatu daitezke. Beste auzo batzuetan ere izan da berrikuntzarik, batez ere Axganen, auzo zaharra eta Basotxuren artean eraiki dituzten etxetako lonjak aprobetxatuz.

Lehenengo auzoetan Zabaldur diren negozio gehienak “betiko” auzoetan zabaldur dira, izan ere. Herrian asko eraiki da, baina familia bakarreko etxetak dira gehienbat. Lonjarik gabe, beraz,



Herrian zabaldur diren denda berri batzuk. Behean, José Antonio Sánchez, merkataria.

Azken hamar urteotan Berangon agertu diren kale berrietan denda bakarri ireki da. Erlojudenda bat, hain zuzen.


«Sabino Arana kalean sortu da negozio berrien eskaintzarik handiena»

Negoziarik berrienetakoa Sabino Arana kalean dagoen informatika-denda da (martxoan zabaldur zituen ateak). José Antonio Sánchez ugazabak informatika-enpresa baten egiten zuen lan lehen. Esan digunez, “dendak zabaltzen ari zirela ikusi nuen, eta animatu egin nintzen neu ere”. José Antonio Etxebarrikoa da jatorriz, baina lau urte daroaz Berangon.

José Antonio pozik dago, gastuak kitat-



zeko ozta-ozta ematen diola aitortzen duen arren. “Dena dela, gero eta hobeto doa. Sartu zaizkidan bezeroek errepikatu egin dute. Eta gura zutena erosteko egun bat itxaron behar-ko zutela esanda, ‘bale, arazo barik’ esan didate. Alboko herrira joan zitezkeen, eta ez dira joan”. m



27 neska eta 28 mutil jaio dira

55 ume jaio dira aurten lazko urte osoko kopurua gainditu da

Jaiotza-tasa gora eta behera ibiltzen da beti komunikabideetan. Igo egin dela, bajatu egin dela... Euskal Herriak du Europako tasarik bajuena, ikerketetek esaten dutenez, baina guztion ahotan dago Uribe Kosta dela joera horren salbuespenetako bat. Berangon, hain zuzen, 55 ume jaio dira 2002an, azaroaren 15era arte. Iaz, urte osoan, 49 jaio ziren, beraz kopurua apurtxo bat handituko da. Hala ere, ez

dirudi 2000. eta 1999. urteetakoak gaindituko direnik; hurrenez hurren, 71 eta 69 berangoztar jaio ziren urte horietan.

2002ko 55 jaio berrietatik, 27 neskak dira eta 28 mutilak dira. Bestalde, lau biki jaio dira, 1985etik kopururik altuena. Egia esan, sei biki baino ez dira jaio Berangon urte hartatik 2001era arte. 1988an, 1994an eta 1999an bina. Aurten marka guztiak hautsi dira, beraz. m

Euskalduntzea motel

Berangon euskara ikasteko aukera gutxi daude, eta horiei uko egiten zaie. Batetik, udal euskaltegirik ez dago, Udalak duela bospasei urte egindako ikerketaren arabera eskaria nahikoa ez zelako, bertako iturriek esan digutenez. Ordutik ez da ikerketa gehiagorik egin. Horren orde, udalak matrikularen erdia ordaintzen die %80ko asistentzia frogatzen dutenei. Gainera, gurasoentzako ikastaroa ematen da kultur etxean, umeei elkarriketa bat izateko

gauza izan daitezen. Orain arte arrakastatsua suertatu da.

Larriagoa da AEKren kasua. Hiru urte da euskaltegia zabaldur dutela herrian, baina, egoitza eta irakasleak eduki arren, ikaslerik gabe geratu dira ikasturte honetarako. Lehen urtean ere hiru talde baino ez zituzten osatu, iaz bakarri, eta aurten, Iratxe Marta Uribe Kostako arduradunak esan digunez, jendeak nahiago du Lauaxetan (Algortan) izena eman, “ohitura-edo”. m



Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79



Telletxe 15, Algorta
T: 460 71 62 - 460 42 44



amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

I

I aki Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!


URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

[berango]

Unai Urrutia > Ehiza Elkarteko presidentea

“Ehiztariok gara ekolo- gistarik handienak”



Unai Urrutiak dio Bizkaiko ehiztariak abantaila gutxiago daukatela

Duela bost urte eratu zen Berangoko Ehiza Elkartea. Gutxi gorabehera 50 kide ditu, eta Unai Urrutia 27 urteko gaztea da presidentea. Berarekin egon gara, elkartea eta ehizaren gainea berbetan, Kurtze auzoko bere etxean.

Gauza batek harritu gaitu lehenbizi: Berangon hainbeste ehiztari egonda, hain gutxi izatea elkartekoak. Izan ere, Unairen ustez *“ezer gutxirako balio du elkarreak, laguntza gutxi daukalako eta jendea ez delako bustitzen”*. Arazoa Bizkaia osokoa da, antza. *“Zeozar eskatzeko garaian sindurak aurkeztu behar badira, Gipuzkoan, adibidez, askoz gehiago aurkezten dituzte hemen baino”*. Ondorioz, *“abantaila gehiago izaten dituzte gipuzkoarrek guk baino”*.


Dena dela, Ehiza Elkarreak badauka zereginik. Urtero Bizkaiko ehiza xehe txapelketan parte hartzen dute (herri bakoitzeko ehiztari bat joaten da), sekula irabazi ez badute ere. Unai bera behin joan zen,

baina ez zuen zorte onik eduki. *“Zulo batera jausi nintzen hasi eta ordubetegarrenean. Ezer harrapatu barik bueltatu nintzen etxera”*. Bizkaian antolatzen den plater-tiroan ere esku hartzen dute.

Ehiztari onak eta txarrak

Ezin elkarrizketa amaitu ehizak sortarazten duen polemikaz berba egin barik. Unaik oso argi ditu ideiak: *“Ehiztariok gara ekologistarik handienak”*. Baina desberdindu egiten du ehiztari eta “eskopeteroen” artean, eta baita ehiztari on eta txarren artean ere.

“Eskopeteroa airetik doan edozeri tiro egiten diona da”, azaldu digu. “Ehiztariak ez du hori egiten. Eta ehiztari txarrak zeintzuk diren? Mendia zaintzen ez dutenak, kartutxo hutsak batzen ez dituztenak, zikin-keria botata uzten dutenak... Edo, adibidez, txakurrak altxatu ez duen txoriari tiro egiten diotenak. Benetan zalea den ehiztariak txakurrak altxatutakoa soilik ehizatzen du”. m



Benito Lertxundik pilotalekuan joko du abenduaren 27an

Hamaika ekitaldi Egitarau mardula egongo da Gabonetan

Berangoko Kultur Etxeak hainbat ekitaldi prestatu ditu Gabonetako oporretarako. Hasteko, abenduaren 27an, gaueko hamarretan Benito Lertxundiren kantaldia izango da frontoian. Biharamunean, leku berean, umeentzako hainbat jolas eta zer egin izango dira. 2-5 urte bitartekoentzat, ludoteka, makillaje tailerra eta triziklo ibilbide puzgarria; 6-10 bitartekoentzat, hankapalu eskola, puzgarria eta logotipo taile-

rra, eta 11-15 bitartekoentzat, gazte ludoteka eta bitxikeria tailerra. Goizean, 11etatik 2ak arte eta arratsaldean, 4:30etatik 7:30etara iraungo du. Azken orduan, jaialdixoa egongo da DJ batekin.

29an, berriz, eta frontoian hauek ere, umeentzako herri kirolak egingo dira goizeko 11etatik aurrera. Arratsaldean, *Kuko, Truko & Bolenmwaider* pailazoen emanaldia izango da ikusgai, 6etatik aurrera. m

[berango]

AGENDA

Gabonak

Abenduaren 24an, Olentzerorekin herrikalejira, Santa Anatik frontoira. Irteera, 17:30etan. 19:30etan ailegatuko da gutxi gorabehera. Ostean, gutun ematea eta gaztain jana. **Abenduaren 27, 28 eta 29ko** ekitaldiak alboko artikuluan aurkituko dituzue.

Ipuin kontalariak

Abenduaren 16an, Hiruki taldearen *Mundu Zabaleko Ipuinak*. 11:00etan liburutegian.

19an, Hiruki taldearen *Anakleto Analfabeto*. 11:00etan liburutegian.

Tailerrak

Otzaragintza ikastaroa umeentzat (euskaraz). Abenduaren 23, 26 eta 27an, eta urtarrilaren 2 eta 3an. Goizez, 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 17:30etatik 19:30etara. Izena emateko epea abenduaren 20ra arte zabalik.

Zinema

Gabonetako egitarau bereziaren barruan, **abenduaren 28an**, Ametsen Lapurra, eta **urtarrilaren 4an**, Ice Age. Biak 11:30etan.

Getxoko eskulangi lanak alga:

ARTE TAXIK

Getxoko artisau eta artisten elkartea

gabonetarako zure opariak!!!

panpinak, nikiak, bitxiak, margoak...

guztia, herrian egina!!!

Algortako Portu Zaharra. T.: 625 999 353

BARBIRULAU BOST

ALGORTA

dj.ak
antzerkia
erakusketak

[albuma]



Zuhaitzen magia

Orain dela 50.000 urte Bizkai osoa basoa ei zen. Eta gaur egun, Uribe Kosta baso bai, baina porlanezkoa, bihurtzeko bidean dagoela, garai loriatsu haren oroigarriak geratzen zaizkigu han-hemenka. Album honetarako, zuhaitz bakartiak aurkitu gura izan ditugu, zuhaitz nabarmenak, duinak, gizakion gehiegikerien aurrean sendo errotutako intsumiso isilak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



[berbetan]

“Lanari buruz, e?”. Halaxe erantzun zigun batere elkarrizketazale ez den Elenak, elkarrizketa hau egitea proposatu genionean. Izan ere, intimitatezale amorratua da emakume zumaia haur. Zergatik eta nola oso ondo ez dakiela aktore bilakatuta, beraren aurpegia aspaldidanik da ezaguna euskaldunontzat, antzerkian, zineman eta telebistan egindako lanei esker. Badu beste lanbide bat ere, itsaso eta mendiaren artean dagoen nekazal turismo etxe bat kudeatzen baitu. Bertan bizi da Elena, eta bertan hartu gintuen elkarrizketa honetarako.

Elena Irureta

Lanbidez aktore

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Zergatik hasi zinen aktoregintzan?

—Ez dakit. Ni hemen hasi nintzen lanean, 18 urterekin. Bi urtez egon nintzen, gero Madrilera jo nuen eta urtebete egin nuen han, eta gero Londresera, han beste urtebete. Bueltatu nintzenean, Antzerki eskola ireki berria zen. 1980an izango zen, ez naiz ondo gogoratzen [Elenak memoria eskasa du datetarako]. Sartu egin nintzen, nondik nora jo oso garbi ez neukalako, eta hiru urteko ikastaroak egin genituen han. Lehenengo promoziokoa izan nintzen. Baina beste edozer egin nezakeen bezala egin nuen hura. Nik ez dut gogoratzen txikitari antzerkia egin nahi nuenik ala. Ez bereziki.

—Eta antzerkia egiten hasi zinen?

—Hasiera-hasieran, eskolan ginenean, euskaraz irakasteko programa bat egiten hasi ginen. *Bai Horixe* zuen izena eta horrekin hasi ginen, denak batera. Eskolako guztioi deitzen ziguten. Geroago, Aitzpea eta biok Txirri, Mirri eta Txiribitonekin lanean hasi ginen, artean eskolan ginela. Hortik aurrera, edozer gauza, antzerkia, hau eta beste... Gauza batek bestera eramaten zaitu.

Gainera, Aitzpea eta biok gure kasa idazten hasi ginen, eta jarraitu egiten dugu. Esaterako, *Hau Paraderua* (orain antzeztan ari garen lana) guk idatzitakoa da. Ez gara hainbeste aldatu. Hogei urtez jende bera-

rekin egon naiz. Kanpotik zerbait azaltzen bada hartu egin behar da, baina ahal dugunean lagunak elkartzen gara.

—Zuk egin dituzu lanbide honetan lagun batzuk, bada...

—Bai, lagun minak ditut. Betikoak. Jende asko eta asko ezagutzen da gure lanean, eta lagunak egiten dira noski, baina azkenean lagunak betikoak dira, herrikoak-eta...

—Lanpetuta, ezta? Telebista, antzerkia...

—Bai, baina tira, ez pentsa hainbesterako denik ere. Jendeak zortzi orduko lana egiten du egunean, eta nik ez dut hainbeste egiten, e? Hemen, jendea dagoenean, 8etatik 2etara lanpetuta ibiltzen gara, hori bai, baina bes-

2003ko martxoaren 6an Getxo Antzokian *Hau Paraderua* antzeztan egongo da Elena >





Elena eta lagunak

Elkarrizketan zehar, Elenak ez du abizenik aipatu ia. Gidoigileak, ekoizleak, zuzendariak, beste aktoreak... ponte izenez aipatzen ditu, lagunak aipatzen diren moduan. Eta halaxe dira kasu asko eta askotan. Orain, astean behin, lagun horietako batzuekin (Aitzpea Goenaga, Loli Astoreka...) elkartzten da *Hau Paraderua* antzezlan taularatzeko. Herri txikietatik ibiltzen dira, Gipuzkoatik batik bat. “*Ez dakit zer gertatzen ari den azken aldian Bizkaia aldean, zaila dago*”, dio. Edozelan, martxoaren 6an Uribe Kostara etorriko da *Hau Paraderua*, Getxora hain zuzen. Momentuz, eta Elenak daukan agendan, antzezlanaren azken emanaldia da.

tela, nire lanean, ez. Madrilera bi astean behin joaten naiz, bi edo hiru eguneko lana egin eta buelta. ETB2koa egiteko Koma ekoiztetxeok deitu zidaten; lagunak ditut han, beraiekin lan egin izan baitut orain dela urte batzuk. Galdetu zidaten ea monologo batzuk grabatuko banituen. “Nahi baduzu dena batera grabatu, egun batean”. Nik ez neukan idazteko denborarik, eta Patxo Telleriari eskatu genion. Idatzi, bial-

“Nik ez dut gogoratzen txikitan aktore izan nahi nuen ala ez, ez bereziki. Hala suertatu zen, besterik gabe”

du, eta nik ikasi eta bota. Bost monologo. —Asko da... —Bai, baina... Gainera, jende gehiago ginen grabazioan. Publiko gizajoak hogeita bat monologo agoantatu zituen, txaloka-eta... —Eta hori guztia ikasteko? —Bada, ikasiz, je, je, je. Hori da gure lana. Hemen denbora asko dago. Nahiz eta etxea beteta egon, ordubietarako jendeak alde egiten du, edo behintzat lana eginda dago, eta zerbait ikasteko badaukazu arratsalde guztia libre. —Hori da aktore baten lanaren alderik txarre-na? —Ikastea? Ez. Niri ez zait hainbeste kostatzen. Badakizu epe baten barruan ikasi beharra daukazula. Onartu eta kitto. Ordu

“Lan bat bukatu bezain pronto ahaztu egiten zait testua. Mekanikoa da”

pare batekin edozein gauza egiten duzu . —Memoria txarra daukazula dirudi, bada... —Bukatu bezain pronto ahaztu egin zait, mekanikoa izaten da, bai, bai, bai. Agian urtebete egoten naiz obra batekin eta nahiz eta emanaldi gutxi egin, hilabetean behin edo bitan, ez zait ahazten. Baina bukatu eta astebetera, ahaztuta guztiz. —Kamera edo ikusleen aurrean urduri jartzen zara? —Egiten ari naizenaren arabera; konpromiso handikoa bada... *El Comisario* eta

horrelakoetan ez, jende asko dagoelako lanean eta nirea ez da ezer. Baina bada ni ibili naizen antzezlan bat, kristoren “totxo-ak” zituena ikasteko, eta ondo idatzitakoak, oso estuak, literarioak, ezin zinen testutik irten, bai erdaraz eta bai euskaraz. Testuak esateko zailak ziren, inork ez duelako inoiz horrela hizketan egiten, eta beti urduri ibiltzen nintzen. Esaldi bat ahaztu eta beste dana pikutara joaten zen.

—Inprobisatzailea zara? Kanpotik behintzat, oso naturala zarela ematen du... —Batzuetan. Gurean esate baterako [*Hau Paraderua*-z ari da], bai. Inoiz, ez bazaizu hitz bat etortzen beste bat esaten duzu. Normalean ez da egiten, baina... —Jendeak telebistako aktoretzat zaituela daukat nik inpresioa... —Pentsa, Jaun ta Jaberen kapitulu bakoitza hamalau aldiz eman dute. Egun osoan telebistan zaude, arratsaldez ez bada goizeko 3etan... Edozein ordutan. Eta jendeak pentsatzen du beti hor sartuta zaudela. Baina ez da hainbeste, serie batetik bestera urte eta erdi edo bi urte pasatzen dira. —Zenbat zor diezu, onerako eta txarre-rako, ETBko telesail umoretsuei?

—Txarrerako ezer ez. Nik egin dudana nahi izan dudalako egin dut, eta gustatu izan zaidalako, oso jende onarekin, eta dena ikasteko izan da. —Dena dela, zuri umorea gustatzen zaizu? —Gustatzen zait nik egiteko, herriz herri joateko esaterako. Joan izan naiz gauza serioekin, baina ez dut uste Ikaztegieta edo Alkitza baterako, adibidez, egokia denik. Hango jendeak agian ez du inoiz antzezlan bat ikusi eta ez dauka ohiturarik. Orduan, ez zara Hamletekin joango.

—Bakarriketa aipatu dugu lehen. Orain boom itzela dago. Zergatik? —Erraza eta merkea delako. —Ez dute esaten, bada, bakarriketa dela aktore baten erronkarik zailena? —Ordubetekoa bada bai, baina bost minutukoa ez. Club de la Comediarekin hasi ziren, funtzionatu egin du horrek eta gauza batek funtzionatu egiten badu denak gauza bera egiten hasten dira. Erre arte, jendea aspertuko da eta ez da egongo monologorik. —Azken boladan Euskal Herriko aktore asko Madrilgo bidea hartuta zaudete, ezta? Hor ikusi dugu Ane Gabarain Periodistas-en, Unax Ugalde, Alex Angulo, zu zeu... —Bueno, Madrilgo bidea... Ez pentsa. Niri ez zait ezer galdu Madrilen. Zuri deitzen badizute hango aldizkari batetik eta hamar aldiz hemengoa pagatzen badizute, bazoaz eta amaitutakoan bueltan zatoz. Hori egiten dugu guk ere. Han lan asko dago, eta toki guztietako aktoreak joaten gara. —Euskaraz, pantailan erabiltzen diren esamoldeak eta kalekoak desberdinagoak dira gaztelaniaz baino. Horrek presiorik ematen dizue euskarazko aktoreei? —Bai. Telebistan, euskara arduraduna daukagu platoan. “Ez esan *det*, baizik eta *dut*”. Batzuetan hizketan ari zara, arrapaladan, eta



Elena Irureta, Zumaia-ko bere nekazal turismo-ko etxearen balkoian

zumaiera ateratzen da, eta “moztu, moztu, *det* esan duzu berriro”. Hara, ez gara euskarazko eskolak ematen ari, jendeak badaki hainbeste. “Baina ezin dut onartu, eta”... Hala hasi ginen. Orain pixka bat lasaitu da.

—Proiekturen bat epe laburrean? —Bai, Iciar Bollainen gidoi bat daukat hemen. Gaia emakumeen kontrako tratu txarrak dira. Hemendik bi hilabetera-edo hasiko gara erro-daje-an. m

Quiero ser socio de MSF colaborando con:

Puedes deducir el 20% de las aportaciones en la declaración del IRPF.

Puedes cancelar este compromiso cuando tú decidas.

*El importe son dones

Datos personales:

Imprescindible para poder enviarte el recibo correspondiente a las aportaciones.

Nombre: LUIS

Apellidos: SUÑOL GARCÍA

Domicilio: AVDA. PRINCIPAL

Número: 145 Piso: 3º C.P.: 37006

Ciudad: SALAMANCA Teléfono: 92357321

Fecha Nac.: 4-11-63 Profesión: DENTISTA

E-mail: luissunol@dentista.es

Domiciliación bancaria:

Nº. Cuenta corriente: 2034 456 2 10

Deitu orain **902 250 902** telefonora edo sartu **www.msf.es** web orrian eta egin zaitetz Mugarik Gabeko Medikuek-en bazkidea. Eskerrik asko.



Asko hitz egiten ari da azken boladan etxebizitzaren arazoari buruz. Merkatu libreko prezioen gorakada itzela, gazteek eta ez hain gazteek etxebizitza eskuratzeko dauzkaten arazo ikaragarriak... Gaiaren muinean, babes ofizialeko etxeen eta etxe sozialen eskaria dago; gizartean guztiz zabaldu den eztabaida da, eta ia egunero ikus edo entzun ditzakegu instituzioetako ordezkariak komunikabideetan horretaz berba egiten. Ondoko erreportajea eskualdean (hainbat herritan behintzat) mota horretako etxeen zer beharrian eta zer eskaintza dagoen ikusiko dugu.

Etxe bila zabilta?

Babes publikoko etxeak

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

8.000 etxe hutsik

Eskualdeko bost herri handienetan 8.076 etxebizitza zeuden hutsik 1996an, erroldaren arabera. Hauek dira herriz herriko kopuruak:

- **Getxo: 3.779**
- **Erandio: 990**
- **Leioa: 1.396**
- **Sopela: 1.589**
- **Berango: 322**

Datuok Eustat estatistika zerbitzuak emandakoak dira.



Etxebizitza babestuen multzoan sartzen diren guztiak ez dira berdinak. Horregatik, eta ezer baino lehen, kontzeptuak argituko ditugu, irakurlearen mesederako. Alde bate-tik, etxebizitza sozialak daude, eta bestetik, babes ofizialekoak (BOE). Bien arteko aldea bete behar diren aurrebaldintzetan datza, batez ere. Geroago zehaztuko dugu gehiago; momentuz, esan dezagun etxebizitza sozia-lak “pobregaoak” direnei zuzentzen zaizkie-la. Bestalde, etxebizitzak salmentan edo alo-kairuan eskain daitezke, eta horrek ere era-gina dauka aurrebaldintzetan. Azkenik, bai batzuk bai besteak ekimen publiko edo eki-men pribatukoak izan daitezke, hau da, ins-titutzio batek edo enpresa pribatu batek egingdakoak.

Azken hamarkadetan, babes publikoko etxebizitza gutxi eraiki da Uribe Kostan. Herri batzuetan, bat ere ez. Orain, gaia pil-plean dagoen honetan, zenbait proiektu daude abian, eta beste batzuk epe laburrean hasiko dira. Kasuren batean, duela urte asko onartutako egitasmoak dira, luzaroan lozo-roan egon direnak, paper hutsa baino ez.

Gaur egun, badirudi nolabaiteko sus-perraldia dela gai honen inguruan. Alde batetik, legediaren aldaketa; hainbat neurri hartzen ari dira orain arte mota honetako etxebizitzaren inguruan ohikoa izan den iru-

zurra ekiditeko. Bestetik, etxebizitzaren ara-zoa ahoz aho ibiltzea. Berriki, EAEko Etxebizitza sailburuak, Javier Madrazok, iragarpen potoloa egin du: 2008rako, etxe-bizitza babestuak merkatu librekoak baino gehiago izango dira. Hori da behintzat zuzentzen duen sailaren helburua. Oraindik ostera, etxebizitza babestuak osoaren %30 dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Uribe Kostari zuzenean dagokion beste iragarpen bat ere egin du sailburuak: datozen lau urte-etan ia 300 etxebizitza babestu egingo dire-la esan du.

Egia esan, kopuru hori baino gehiago erakiko da. Kontuan izan behar da Etxe-bidez gain (Euskadiko etxebizitza zerbitzua, Eusko Jaurlaritzari lotua), udalek ere egin ditzaketela etxebizitza babestuak. Eta Uribe Kostan horixe gertatuko da; bai batzuk bai besteak eraikitzen ari dira, kasu batzuetan, edo eraikitzen hastear daude.

Sailburuak aipaturiko 293 etxeetatik, 28 Berangon egingo dira. Izan ere, lehen hamabiak berehala hasiko dira eraikitzen Lantzarte auzoan, eta honezkero ugazaba eta guzti daukate, zozketa eginda dago-eta (gogora dezagun etxebizitza babestua erosi edo alokatu ahal izateko zerrenda batean izena eman behar dela, eta horkoen artean zozketa egiten dela). Gauza bera gertatzen

«Beharra eskaintza baino handiagoa da; urteak pasatu daitezke zozketa batean sartu arte»





Astrabuduan egindako babes ofizialeko etxeak



Lamiakoko metro geltokiaren inguruan etxeak eraikitzen ari dira

Babes-etxebizitzak Uribe Kostan

	egin dira	egingo dira
• Berango	0	42
• Erandio	291	275
• Getxo	0	320
• Leioa	194	(?) 230
• Sopela	0	(?) 90

Datuak gutxi gora beherakoak dira, eta ez guztiz ziurrak Leioa eta Sopelaren kasuan. Erandion eta Leioan eginda daudenen artean, zaharrenak 90eko hamarkadaren hasierakoak dira. Egingo direnen artean, kasu batzuetan lanak hasita daude; beste batzuetan, plangintza baino ez dago, data zehaztuta edo zehztu gabe.



Aurrean ikusten diren Berangoko landa hauetako batzuetan etxebizitzak egongo dira laster

da Erandioko Bekoa auzoan (112 etxebizitza egingo dituzte, 56 sozial eta 56 babes ofizialekoak), baina hor arazo larria dago une honetan: zozketan etxea tokatu zitzaientek ez dakite noizko edukiko duten, lanak hasi zituen enpresak bertan behera utzi ditu-eta aurtengo udan, lurrazpian ur gehiegi zegoela-eta aurrekontua gehiegi handituko zela argudiatuz.

Itxaron behar

Victor Barroso da zain dagoenetako bat. 57 urte ditu eta bakarrik bizi da, alokairuzko pisu batean. Etxebizitza baten jabe ez izatea zerrendetan izena emateko derrigorrezko baldintza da. Barrosok *“bizpahiru urte”* zeramatzan Etxebiden izena emanda; maiatzaren 30ean egokitu zitzaion etxebizitza eta,

orain, gainerakoek bezala, ez daki zenbat itxaron beharko duen. *“Urtebeteko atzerape-na egongo da gutxienez; hortik aurrera...”*. Ana Crespo Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotzia da Erandion. Azaldu digunez, Bekoako 112 etxebizitzak zintzilik daude oraintxe. *“Ez da ordezeko enpresarik kontratatu oraindik; Eusko Jaurlaritzak ez zigun ezer esan hilabeteetan, eta azkenean udaletik deitu behar izan genuen ea zer gertatzen zen galdetzeko. Orain badirudi urtarrilean hasiko direla lanak berrir. Okerrena da etxebizitza horiek egiteko hitzarmena 1997tik zegoela sinatuta, eta aurtengo urtarrilera arte ez direla lanak hasi”*.

Crespok dioenez, bere taldea alokairuzko etxebizitza sozialak egitea bultzatzen ari da, *“beharrrik handiena daukan jendearenga-*

na heltzeko modu bakarra delako. Besterik egitea ukatu barik, noski. Denetarik egon behar du-eta”.

Alokairuzko etxebizitza sozial baten zozketan parte hartu ahal izateko baldintzak askoz “bigunagoak” dira gainerako kasuetan baino. Urtean gutxienez milioi erdi pezeta irabazten dela frogatu behar da, eta hori, Crespok gogorarazten duenez, *“edonork irabaz dezake teorian, lanik eduki ez arren, zerbitzu sozialen dirulaguntzak jasota kopuru horretara heltzen baita”*. Hala ere, sektore batzuk teoria horretatik kanpo geratzen direla salatu du: *“Laguntza horiek jasotzeko 25 urte eduki behar dira beteta. Hain zuzen, etxebizitza eske dabilenetako asko gunasoen etxean eta langabezia dauden gazteak dira”*.



Algortako eremu honetan babes ofizialeko etxeak ere egingo dira

«Uribe Kostan eraikiko diren gehienak babes ofizialeko etxeak dira, sozialak baino garestiagoak»

Eskaria, gero eta handiagoa

Erreportaje honetarako erabili ditugun iturri guztiak bat datoz etxebizitza babestuen eskaria handia dela esatean. Tamalez, ezinezkoa da herri bakoitzean izena emanda zer jende kopuru dagoen zehatz jakitea. Uztailetik, edozein unetan eman daiteke izena Etxebiden, eta zerrendak etengabe ari dira aldatzen. Baina argi dago beharra eskaintza baino askoz handiagoa dela, jendeak urteak ematen baititu zozketa bat noiz egokituko zain. Edozelan, eta lehentxeago esan dugunez, Madrazoren 300 etxebitzak baino gehiago egingo dira hurrengo urteetan, bai Etxebidek bai udalek sustatuta. Guztira, Berangon 42, Getxon 320 inguru, Sopelan 90, Erandion 275 eta Leioan 200etik gora. Gehienak babes ofizialekoak

dira, hots, sozialak baino garestiagoak. 90 metro koadroko BOE batek (hori da etxe babestu batek legez eduki dezakeen azalera-rik handiena) 15 miloi pezeta balio du. Neurri bereko etxebizitza sozial batek, berriz, 7 milioi eta erdi balio du ekimen publiko-koa denean, eta 10 ekimen pribatukoa izatekotan.

Asko eraikiko da epe laburrean, baina askoren ustez ez da nahikoa. Bestalde, etxe babestu bakoitzeko ez-babestu asko egiten dira. Orain arte etxebizitza publikoan izan den iruzurrari aurre egiteko neurriak hartu diren honetan, ikusteko dago nonor merkatu librekoen prezioen hazkunde geometriko-koa gelditzeko gai izango den. Bitartean, zozketa batek erabakiko du etxe bila dabil-tzan asko eta askoren patua. ^m

Aurrebaldintzen gorabeherak

Esan dugunez, etxebizitza sozialak edo babes ofizialekoak eskuratzeko bete beharreko aurrebaldintzak ez dira berdinak. Are gehiago, desberdintasun handia dago batetik bestera.

Hauek dira Etxebidek etxe mota baten edo bestearen hartzaile izateko ezartzen dituen aurrebaldintzak (Udal bakoitzak, bere kabuz egiten dituen sustapenetarako, bereak ezar ditzake):

- Edozein motatako etxe baten jabe izateko, gutxienez aurreko urte bietan etxerik eduki ez izana eta dagokion udalerrian gutxienez urtebetez erroldatuta egon izana frogatu behar da. Diferentzia urtero irabazten den diru kopuruetan dago. Etxebizitza soziala erosi ahal izateko, 1.500.000 pezeta irabazi behar da urtean gutxienez, horren %90 edo gehiago kontratu finkoko lanbide baten bidez eskuratu behar delarik. Alokatzeko, berriz, gutxienerako diru sarrera hori 500.000 pezetatan ezarrita dago, beste inola-ko baldintzarik gabe.

- Etxebizitza soziala ekimen publiko-koa denean, gehienez irabazi daitekeen soldata urtean 2.500.000 pezetakoa da. Ekimen pribatukoen kasuan, kopuru hori 3.500.000koa da.

- Babes ofizialeko etxeak erosteko baldintzak aurrekoen antzekoak dira, desberdintasun batekin: gehienez ere 5.500.000 pta. irabaz daitezke urtean. Erreportaje hau osatzeko berba egin dugunetako askok salatu dutenez, tarte handiegia da, horrelako irabaziekin merkatu libreria jo daitekeelako arazo barik. Gerta liteke, esaterako, zozketa batean urtean 5.000.000 pta. irabazten duen bati egokitzea etxea, 1.600.000 irabazten duenaren kalterako.

- Alokairuran eskaintzen diren babes ofizialeko etxeei dagokienez, berriz, prezioak merkatu librean dauden askoren parekoak izaten dira. Etxearen azaleraren arabera aldatzen da, baina kasu guztietan hileko 70.000 pezetatik gorakoak dira alokairuok.

[pertsonaia]

Apala eta hitz gutxitakoa da Iker Fuentes. Surfari buruz hitz egitean, berriz, begiak pizten zaizkio eta barra-barra hasten da berbetan. Eneko Acerorekin batera, gure eskualdeko surfer profesional bakarra da 24 urteko algortar hau. Sasoi bete-betean dago eta horrela ikusi zen Mundakan urrian egin zen Munduko Zirkuitoa Txapelketan. Gaur egun munduko bigarren surfer onena den Luke Egan-i irabazi zion Ikerrek han.

Iker Fuentes

“Antizikloien etsai amorratua naiz, borriskak maite ditut”

Testua: **Jokin Aspuru** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Bakion Euskal Herriko Surf Federazioak antolatutako txapelketan egin genuen hitzordua Ikerrekin. Berak goizeko hamarretan lehiatu behar zuen eta, hortaz, hamar eta erdiak aldera lotu ginen beragaz. Baina Ikerren eguna, gurea ez bezala, askoz lehenago hasi zen. Egun horretan goizeko bost eta erdietan altxatu zen, Sopelatik –han bizi

da– Mundakara joateko: “*Banekien olatuak primerakoak izango zirela han*”, argudiatu zigun. Surfaldi goiztiar eta sakonaren ondoren autoa hartu eta Bakiora abiatu zen lehiaketan parte hartzera. Uretatik irten berria, artean, hotzerako trajea jantzita zuela hasi zen elkarriketa hau.

—Apur bat zoratuta zaude, ezta? Lehiaketa bat gaur eta hala ere, lehenago Mundakan egon zara olatuak hartzen... —Uste denaren kontra surfa, udakoa baino, neguko kirola da. Bai, behintzat hemen. Neguan ura oso hotz egon arren askoz olatu gehiago eta hobeak daude. Mundakan neguko egun jakin batzuetan dagoen olatua munduko onenetakoa da, ez dut nik bakarrik esaten, horrela diote adituak. Banekien gaur horrelako egun bat izango zela, eta zer esango dizut, ba? Ni urte osoan zehar surf egiteko horrelako une bereziak itxaroten

egoten naiz, amesten ditut. Eta jakina, suertatzen direnean ezin hutsik egin. —Hain zuzen ere Mundakan urrian egin zen Munduko Surf Zirkuitoko txapelketan sorpresa eman zenuen Luke Egan izarra kanporatuz... —Horrelako plaza batean surfeatzeko aukera ez da egunero izaten. Txapelketa hau munduko bazter guztietan egiten da eta beti tokian tokiko surferrak gonbidatzen dituzte parte hartzera. Mundakakoan, Eneko Acero eta biok izan ginen aukeratuak. Banekien begirada asko gainean izango nituela, urduri nengoen baina zorionez gero oso pozik geratu nintzen egindakoarekin. —Mundaka surfer guztien “Meka” dela ematen du, baina gurean, Uribe Kostan, zein da zure spot-ik (olatuak hartzen diren lekua) gogokoena? —Gorrondatxe hondartzaren ezkerraldean sekulako olatuak egoten dira.





01



02

—Zelan, zergatik hasi zinen surf egiten eta ez beste kirol bat?

—Nire gurasoak beti Salvajera [Barinatxe hondartzaz ari da] joaten ziren eta han ikusi nuen lehenengoz jendea olatuetan irristatzen. Zortzi urte nituela nik surf ohola gogotik eskatu nien arren, kortxoa erosi zidaten ohola hain ume koxkorarentzat arriskutsua zelakoan. Zorionez, aitak nire kortxoa erabili eta apurtu zuen. Handik gutxira ohola erosi zidaten. Eta hartatik, uste dut ez dela izan nik itsasoan pentsatu ez dudan egunik.

—Surfean, gure irakurleak jakin dezaten, oholaren gainean bat paratzen den moduagatik, ezkerre ala eskuina dela esaten da. Zu zer zara?

—Ni? Ezkerra. Eta ez surfean bakarrik, bizitzako gainerako arlo guztietan ere bai (barre)!

—Ez dizut galdetuko zenbat irabazten duzun hilero, baina nondik datorkio soldata zu bezalako surfer profesional bati?

—Alde batetik, irabaz dezakeen txapelketetako sariengatik, baina nagusiki sponsorren eskutik. Nireak dira Billabong, arropa guztia eta surfeatzeko trajeak; Reef, oinetakoak; Aakley, eguzkitarako betaurrekoak eta Pukas, surf oholak.

—Iragarki bat ematen duzu. Eta beti hori guztia jantzita ibili behar duzu?

—Ia beti! Baina ez da horrenbesterako. Neuk aukeratzen dut arropa eta gainera nahi beste eta gainera debalde ematen didate.

—Kirolari profesional moduan entrenamendu berezirik egiten al duzu?

—Ez, surfa naturari zuzenean lotutako kirola da eta nekez egin daiteke entrenamendu erregular bat itsasoan baldintzak etengabe aldatzen baitira. Ni eguraldiaren menpe bizi naiz, hodeiei, haizeari begira. Eurek esaten didate olaturik dagoen ala ez.

—Eman dezakeen kontra surfa kirol gogorra da: ur hotza... Zein da surfer baten etsairik handiena?

—Niretzat, Azoreetako antizikloi ospetsua. Horrek olaturik ez egotea baitakar. Antizikloien etsai amorratua naiz, borraskak maitetut. ^m

01- Iker, maniobra erradikala egiten Caparican, Portugal. 02- Bawa, Indonesia. 03- Botton-turn bat Penichen, *Supertubos* izenarekin ezagutzen den lekuan, Portugal. 04- Iker Mundakan, gehien estimatzen duen olatuan. ARGAZKIOK: WILLY URIBE



03



04

Gabonetan lanean

Laster datozkigu Gabon-gaua eta Gabonzaharra, data bereziak, etxean familiarekin egoteko gauak, edo, alaso parranda itzela egitekoa ere bai. Badira, baina, behar bereziak dituztenak eta, urtero-urtero ez bada ere, lantzean behin gau horietan lantokian egotea egokitzen zaienak. Euretako batzuekin berba egin dugu.

Testuak: Unai Brea Argazkiak: Asier Mentxaka



“Zortzietan afaldu nuen, nik bakarrik eta familikoak begira”

Iraide Bilbao. Farmazilaria Bakardade gorrian

Bere zorionerako, lanbidean daramatzan bost urteetan behin baino ez du Gabonzaharrean lan egin Iraide Bilbao farmazilari areetararak. Sestaoko farmazia batean zebilen orduan, eta gaueko hamarretarako bertan egon behar zuen. “*Gaueko zortzietan afaldu nuen, besteen afari bera baina nik bakarrik eta familikoak begira*”. Gero, urte berriari bakardadean eman behar izan zion ongi etorria. “*Txanpaina neukan eta mahatsa jan nuen, baina nahiko tristeia izan zen*”, gogoratu du.

Senideen eta lagunen deiak jaso ostean, berehala hasi zen lana: “*Hamabiak eta bostean lehen bezeroa etorri zitzaidan, petardo artean, Almax eskatzen*”. Hortik aurrera, lan asko, baina ez zapatu arunt batean baino gehiago, Iraidek dioenez. Soldata ere, “*edozein domekatakoa*”, kexu da. Eta bezerorik ez zetorkion bitarteetan, telebistaren laguntza izan zuen. “*Lo egiteko aukera edukiko nuela uste izan nuen, baina ezin*”. Inori ez gomendatzeko moduko Gabonzahar alternatiboa, egia esan. ^m

Unai Ardeo. Suhiltzailea Hau ez da “erretzen”

Urte bi besterik ez daroaz suhiltzaile, eta sei egunetik baten egiten du lan (horretan, hori bai, 24 orduz jarraian), baina dagoeneko izan du Gabon-gaua eta Gabonzaharra parkean emateko “aukera”. Hala ere, algortar honi ez dio axola horrek, berez ere ez baitie inportantzia handiegirik ematen data horiei. “*Bueno, inportantzia bai, baina ez naiz hil aginean jarriko Gabonzaharrean etxean edo mendian egotearren. Eta parkean ere gustura egoten naiz*”.

“*Diputazioak, Gabonetan, otzaratxo bat ematen dio errelebo bakoitzari*”, diosku Unai. Errelebo bakoitzak gura duen moduan banatzen du opari hori; Unairenak, jeneralean, otordu on bat egiteko aprobetxatzen du. “*Ondo pasatzen dugu*”, dio irribarre batez, “*noski, lanean gaude eta kontua ez da parranda egitea; edan bere ez dugu edaten, igual baso bat ardo egun osoan*”. Badute beste ohitura bat: Gabonzaharrean, gaueko hamabietan, kamioietara igo eta txirrina joz kalera irtetea. Eta holan igarotzen dira Gabonak parkean. ^m



“Parkean be gustura egoten naiz Gabonzaharrean”



“Lan egin nuen lehen Gabonzaharrean eman zidan min handiena ez irteteak”

Bego Ugidos. Tabernaria Barra atzeko zoramena

Bego algortarra da, 25 urte ditu eta lauzpabost daroaz barraren atzean beharrean, ikasketekin batera. Gaur egun Manhattan tabernan dabil asteburuetan, eta Gabonzahar bat baino gehiagotan lan egitea egokitu zaio. “*Orain onartuta daukat Gabonzahar egunean lan egin behar dudala. Lehenengoak ematen du min handiena*”. Dena dela, hasierako uneak gogorrak izan arren, gero lanean murgildu eta, ahal den heinean, ondo pasatzen saiatzen da.

Tabernariak, beste lanbide batzuetan aritzen direnek ez bezala, etxean afaltzen dute. “*Bai, baina ordu batetarako lanean egon behar da. Afalostean arineketan moztarrotu, barre apur bat egin eta korrika beharrera*”. Ondoren, besteek nola gozatzen ikustera, norbera lanez gainezka dagoela: “*Gabonzaharrekoa zoramena da. Ezin gelditu, lau erronda aldi berean, beste bost lagun mesedez, mesedez*” oihu egiten, lankideekin berba egiteko astirik ere ez... Agian, bezeroekin txantxaren bat egiteko denbora egoten da, baina ez gehiegi”. ^m

Pablo Alegre. Erizaina Lanean alai

Berangoztar honek zazpi urte daroaz erizain. Gurutzetan, Mendaron, Basurton... hainbat ospitaletan ibili da, eta behin baino gehiagotan tokatu zaio Gabonganean edo Gabonzaharrean behar egitea. Dioenez, ez du arazorik horrelakoetan: “*Aldez aurretik ere banekien lanbide honetan txandaka egiten dela lan, eta jaiegunetan, asteburuetan, gauetan, eta noski, gabonetan egokitu ahal zai-zula. Onartzea besterik ez dago*”. Okerrago izaten da seme-alabak dituztenentzat. Dena den, giro ona izaten da. “*Gure lana txukun egiteari utzi barik, ondo pasatzen ahalgintzen gara, giro alai*an”. Bestelako kontua da gaixoei animo ematea. Pablok Basurtoko erreanimazio sailean egiten du lan, bisita ordutegirik gogorrera daukanetako baten, hain zuzen be. “*Gabonetako data esanguratsuetan jeneralean hoge minutukoa izaten den bisitalditxoa luzatzen uzten dugu*”. Gero, gauean, gaixoak ahalik eta goxoan egon daitezen saiatzen dira. Gabonzaharrean mahatsa be jaten dute, ahal duten gaixoei. Etxean bezala. Edo ia. ^m



“Gabonetan bisita luzeagoak egiten uzten diegu senideei”



Iñigo Azkona
**Bestelako mundu baten
aldeko irudiak**



Iñigo Azkona



Arte Ederrak, ikusentzuneko adarrean ikasten zegoela betidanik Bilbon bizi den Iñigo Azkonari (Gernika, 1975) argazkigintzarako zaletasuna erne zitzaion. Artean ikasketak amaitu barik zituela Egunkarian hasi zen argazkilari moduan lanean. Gaur egun prentsa argazkilari freelance da eta bere lanak hainbat

komunikabidetan argitaratzen dira, besteak beste, Argia, Zabalik, Gaztetxulo edota El Temps. Ikusi ditzakezuen argazki hauek Ekuadorrera hiru hilabeterako egin duen bidaiaren bezperan utzi zizkigun Iñigok. Han, inmigrazioaren fenomenoari buruzko lan fotografikoa egiteko asmoa du. Orrialdeotako irudi sorta iazko ekainean Bartzelonan globalizazioaren aurka egin zen manifestazioan murgilduta hartu zituen Iñigok.





Manu Gómez & Oskar Fernández > Getxoko Zine Klubeko arduradunak

“Ez dugu Garciren gonbidatuek bezala berba egiten zinemaz”



Oskar Fernández (ezkerrean) eta Manu Gómez (eskuman), zinemari adituak

Zinemak bikote gogoangarriak eman ditu Historian zehar: Humphrey Bogart eta Ingrid Bergman, Katherine Hepburn eta Spencer Tracy... Pantailatik kanpo sortutako hau ere ez da makala. Manu Gómez eta Oskar Fernández Getxoko Kultur Etxeak antolatzen duen Zine Klubeko aholkulariak dira. Musutruk egiten duten lan horretaz eta, oro har, zinemaz berba egin digute, solasaldi mamitsu bezain atseginean.

—Noiztik zabilzate honetan?
—Manu: 20 urte gutxi gorabehera. Lehen beste batzuk ibili ziren, baina utzi egin zuten, guk noizbait utziko dugun bezala. Garai hartan gu Zine Klubeko emanaldietara etortzen ginen; ez dakit zelan, film bat handik, beste bat hemendik, hasi ginen, eta gaur arte.
—Aholkulari hutsak zarete ala antolakuntzan ere parte hartzen duzue?
—Oskar: Antolakuntza, batez ere, Kultur Etxearen esku geratzen da. Guk filmak aukeratzeko. Bestetik, emanaldietara doazenentzako azalpenak idazten ditugu, press-book esaten zaion hori; Manu arduratzen da horren maketazioaz. Eta, azkenik,

filma amaitu ostean egoten den forumean moderatzaileak gara. Lehen hausnarketa ere geuk botatzen dugu, jendea animatzeko.
—Desadostasun handiak izaten dituzue filmak aukeratzera? —M: Ez, handiak ez.
—O: Gustu desberdinak ditugu, baina ados egoten gara. Hamarkada bi igaro dira eta ez dugu arazo bakar ere bat eduki alde horretatik, gustu desberdinak izan arren.
—Zuek ez daukazue zinemarekin lotutako lanbiderik, ez eta ikasketarik ere, eta hala ere zinemaz asko dakizue. Zelan ailegatzan da horretara?
—M: Jakin, jakin... Tira, nik uste dut inoiz

ez dugula zinemaz jakingo. Zerbait ulertzen dugu, baina jakin ez.
—O: Egia esan, bioi gustazen zaigu zinema, umeak ginenetik. Ni astean hirutan joaten nintzen zinemara. Gero, nagusitan, gustuko izaten jarraitu nuenez, ikastaro batzuk egin nituen, eta zinema-hizkuntzari buruzko gau-

“Gustu desberdinak ditugu, baina ados egoten gara. Hogei urtean ez dugu arazorik izan”

zak irakurri nituen. Horrela asko ikasten da. Oinarrizkoena ikustea da, baina irizpide kritiko batez ikustea, ez geratu kontatzen den istorioan soilik. Horretarako oso lagungarria da zinemaren hizkuntza ezagutzea.
—Jende gehienak modu horretan ikusten ditu pelikulak?
—M: Gaur egun ez, hori galduta dago. Zine klubak galduta daude, nire ustez. 70eko hamarkadan funtzionatzen zuen, ze gainera erdi ezkutuan ematen ziren eta horrek erakargarritasuna ematen zien, baina orain...
—O: Gaur egun, gobernuak, eta hezkuntza sistemak ere bai, nire ustez, ez dute zinema hartzen gertakari artistikotzat, eta artea da azken batean. Baina gehien ikusten den artea da, eta horrek hausnarketa kritikoa egiteko aukerak ezereztan ditu. Jendeak, zinema-aretorik irtendakoan, zera komentatzen du lagunekin: zein musika ederra, edo ze eszena beldurgarria. Beste barik.
—Dena den, zinema guztia da artea?
—O: Ez.
—M: Bai.
—O: Irudien bitartez eta zeluloidezko euskarrian kontatzen diren istorio guztiak ez dira artea. Batzuk izango dira, eta beste batzuk denborapasa baino ez, aisialdirako tresna hutsa.
—M: Egia esan, berba desberdin bi ditugu,

bereizketa egiteko balio dutenak, ezta? Pelikula eta filma.
—Zinemaz berba egiten duzuenean, Garcik bere saiora erosten dituen gonbidatuek bezala egiten duzue?
—M: Ez, gizona, ez, gu askoz etxekoagoak gara. Eta gutxiago dakigu, noski. Dena den, ez gara maila horretan kokatzen. Gure zerregina Zine Kluba existitzen laguntzea besterik ez da. Filmaren ostean berba egitea edo ez jendearen esku dago.
—O: Ezin gaitezke hasi “argiak honela jotzen du protagonistarengan” edo “plano hau ez dakit zein motatakoa da” bezalako komentarioak egiten. Azken batean, garrantzitsuena istorioaren analisisa egitea da. m


“Gobernuak, hezkuntza sistemak... ez dute zinema artetzat hartzen, eta artea da”



lazko denboraldian 24.000 lagun joan ziren Zine Klub-eko emanaldietara

Una bala laburmetraia

Ibon Antuñano getxoztarraren bigarren film laburrak **arrakasta** handia lortu du



Ibon Antuñano Getxo Antzokiko sarreran

Ibon Antuñanok 24 urte ditu, Getxoko da, surfa eta waterpolo egiten du eta zinemarekin lotura estua dauka: hiru urtez Bartzelonako SECC zinema eskolan ikasi du eta argazki zuzendari moduan behar egiten du. Duela urte bi inguru, *Sentimendu Baten Istorioa* bere lehen film laburra zuzendu zuen, “*kamera digitalarekin*”. Proiektu apala izan zen, Getxon bertan eta baldintza eskasetan errodututakoa. Orain urte bat, berri, *Una Bala* bigarren lana burutu zuen.

“Edgar San Juanen –Bartzelonan ezagutu nuen lagun bat– ideian oinarrituta dago. Elkarrekin idatzi eta egin genuen”. Una Bala-k minbizia duen eta bere burua hiltzeko bala bat erosten duen gizon baten istorioa kontatzen du bederatzi minutu eta erdian. Nazioarteko hainbat zinemalditan eman da, sari garrantzitsuak lortuz. Azaroan estrenatu zen Getxon, “oso kritika onak jasoz”, eta geroxeago Zinebi Bilboko film laburren zinemaldian eman zuten, Getxon bertan. m

Datozen pelikulak

Getxoko Kultur Etxearen eskutik

- **Ogia eta arrosak (Ken Loach)**, (euskaraz) Getxo Antzokian, abenduaren 4an, asteazkena, 20:00etan, Euskara Jardunaldiak.
- **Tanguy, ¿qué hacemos con el niño? (Ettienne Chatilliez)**, Getxo Antzokian abenduaren 11n, asteazkena, eta Areetako Gran Cineman abenduaren 12an, osteguna. 20:00etan. Zine Kluba.
- **Goldfork Park (Robert Altman)**. Getxo Antzokian, abenduaren 13an, ostirala, 22:00etan. Cinema Paradiso.
- **Elling (Petter Naess)**. Getxo Antzokian abenduaren 18an, asteazkena eta abenduaren 19an, osteguna, Areetako Gran Cineman 22:00etan. Zine Kluba.
- **Lantana (Ray Lawrence)**. Getxo Antzokian, abenduaren 20an, ostirala, 22:00etan.
- **Lejos (An.Techiné)**. Getxo Antzokian, abenduaren 27an, ostirala, 22:00etan.

Pantxoa&Peio Getxon

Getxoko Euskararen Jardunaldien egitarauaren barruan Pantxoa eta Peio bikote lapurtarraren kontzertua egongo da abenduaren 5ean. Getxo Antzokian izango da emanaldia, arratsaldeko zortzietan, eta Iparraldeko abeslari beterano bi hauen azken diskoa Bizkaian aurkezteko balioko du. Kontzerturako sarrerak 6 euroko prezioa izango du, eta azaroaren 25etik dago salgai Kultur Etxearen Urgulleko egoitzan. Aukera polita, beraz, Pantxoa eta Peioren azken lana ezagutzeko, eta, segurantzean, betiko kantuez garai zaharrak gogoratzeko.

Argazkian, Peio eta Pantxoa



Datozen kontzertuak

Eskualdeko hainbat tabernak kontzertuak antolatu dituzte abendurako. Hona hemen zenbait:

- Urdulizko TXIBERRI tabernan: **5ean**, *Pateando Porquería* eta *Las Hijas de la Anestesia*. 22:00etan. **14an**, *Broma Satan* eta *The Cool Spider*. 22:00etan. **21ean**, *Evolver*, *ACP* eta *Crickrat*. 22:00etan.
- Barrikako GOLFO NORTE tabernan: **7an**, *Rockadelica*. **14an**, *The Reverendos*. **21ean**, *Los Fastuosos de la Ribera*. **28an**, *El Tercer Nombre*. Kontzertu guztiak gaueko hamaiketatik aurrera egingo dira.

Musika sortzailea

Txistutik jazzera igaro ostean, “ikasten eta konposatzen” dabil **Jon Etxeandia**

Musikaria. Berba bakar zein potolo horren bidez defini dezakegu Jon Etxeandia 42 urteko algortarra. Urretxindorra ikastolan musika irakasle izateaz gain, betidanik du harremana doinu eta soinuarekin. Bi aldetako harremana, berak dioenez: *“Batetik ikastea, eta hori ez da oraindik amaitu. Bestetik, musika ekoiztea”*.

Txistua jotzen hasi zen, ikastolan, eta horretan eman zituen urteak. Ondoren, txikitatik maite zuen jazzera salto egin zuen, klarinetea eta saxoa joz. *“Zubipeco Swing taldearen sortzaileetako bat naiz; laster 20 urte beteko ditugu”*. Jazzean aritzeak konponketak egitera behartu zituen, *“dena ez baita bat-batekoa, konponketaren ere badago”*, eta horrek piztu zion konposatzaile sena.



Argazkian, Jon Etxeandia

emanez amaitu du elkarrizketa. *“Jendeak ez du musika ulertzen, baina margolaritza bai. Orduan, musika ulertzeko, adibide hau emango dizut: margolaritzan badago marrazkia, eta hori, musikan, doinua da. Bestetik, sakontasuna dago, perspektiba; musikan, hori harmonia da, beste ahotsak, koruak. Eta, azkenik, kolorea dugu. Musikan, kolorea tresna desberdinen soinuak dira”*. Guztiz pedagogikoa. m

Erradiografia



Jazzte Borrazte taldeko musikariak

Nondik dator izena: *“Luzea da azaltzeko baina gure lagun batek, euskara ikasten ari zenak, nahaste-borraste esakera aipatu zigun, eta era horretako banda garenez, hala erabaki genuen”*. **Jaio ziren:** *“1998. urtean hasi ginen. Urte horretan gure lehen kontzertua eman genuen, pizzeria batean”*. **Taldeko ki-deak:** Isidro (tronboia), Germán (pianoa), Alain (saxoa), Jose (tronpeta), José Manuel (kitarra), Toño (kitarra), Kepa (baxua), Eva (txirula), Irantzu (txirula) eta Ibon (bateria). **Gustukoa dute:** Bakoitzak bere gustu musi-

kala eduki arren, *“guztioi jazzaren usaina darigu. Gure musikak jazzaren eskemak jarraitzen ditu”*. **Diskografia:** *“Maketa da falta zaiguna; hala ere, badaukagu kontzertu baten grabazioa”*. **Besteak beste jo dute:** Amaigabeko zerrenda daukate; hainbat tabernatan, koktel, hotel, kontzertu benefikoak, La Bilbainan, Guggenheim museoa, Euskalduna Jauregian, telebistan... **Musikaren egoera:** *“Ez dago bitartekorik behar bezala aurrera egiteko, lokal gutxi dago, eta sustapenik apenas”*. m **T. 615768512 (Germán)**

> Nire disko kutunak IZKANDER FERNANDEZ*



EUSKARAZKO DISKO KUTUNAK

01. Itoiz “Espaloian”
02. Su Ta Gar “Homo sapiens”
03. Danba “Esamesaka”
04. Negu Gorriak “Borreroak...”
05. Ama Say “Ikusi ditut umeak...”
06. Berri Txarrak “Eskuak/ukabilak”
07. Kuraia “Kuraia”
08. Dut “At”
09. Kashbad “Distantzia”
10. Pi-L.T. “III”

ERDARAZKOAK

01. Guns N’Roses “Apetite for destruction”
02. Pixies “Bossonova”
03. Tori Amos “Under the pink”
04. Black Sabbath “Paranoid”
05. Led Zeppelin “IV”
06. Tom Petty and The Heartbreakers “Into the great wide open”
07. Screaming trees “Dust”
08. Soundgarden “Down the upside”
09. Neil Young “Harvest”
10. Dead can dance “Within the realm of a dying sun”

*IZKANDER FERNANDEZ “Algara” Gara egunkari-ko gehigarriko kolaboratzailea eta Villa de

diskoak

Elearen lainoa
Olatz Zugasti
Elkarlanean



Olatz Zugastiren hirugarren diskoa da hau. 1991n “Kantu baten bila nabil” eman zuen argitara eta 1999an sehaska kantuz “Bulun bulunka”. Oraingo honetan Olatz Zugastik konposaturiko 12 abesti berri ditugu. Hitzak Itxaro Bordarenak, Henriette Aierrenak eta Olatzenak berarenak dira.

Lapurtar koblariak
Pantxoa eta Peio
Elkarlanean



Diskoaren izenak (*Lapurtar Koblariak*) aditzera ematen duenez, Lapurdiko kantu zaharren bilduma eskaintzen digu bikote ezagun eta historiko honek euren azken lan honetan. Mixel Ducau musikari ezagunaren laguntza izan dute produkzioan eta Jean Phocas-ena grabazioan.

diskoak

BED#3
Batzuen artean
Metak



Diasporako kideak hasierako ideia garatzen jarraitzeko atzera elkartu dira. Musika elektronikoarekin egindako bilduma berri bat da hau, oraingoan *dark mood*-erantz gehiago bideratzen dena. Diskoak martxoan hil zen Bixente Iriart aurreko bi bildumen koordinatzailea izan zenaren izpiritua bizirik mantentzen du.

Harrobian
Zea Mays
Gaztelupeko Hotsak



Lan interdisziplinarra da hau. Batetik, liburuxkan harrobian gertatzen den gizaki baten istorioa jasotzen da eta honetarako Kirmen Uriberen laguntza izan dute. Bestetik, taldeak konposatutako zazpi kantu, tartean Itoiz taldearen bert-sio bat Eta azkenik, *Gauaren argitan* kantua- ren bideoklipa. Gehiago nahi?

Los lunes al sol
Lucio Godoy
Subterfuge



Donostiako Zinemaldian Urrezko Maskorra eskuratu zuen film honetarako Lucio Godoyk egindako musika ederra da. Diskoan Tom Waits eta Charles Trenet-en abesti bana daude. Gainera, Fernando Leon de Aranoa zuzendariak arretaz aukuratutako filmearen elkarrizketak ere entzun daitezke.

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Durango revival

Trantsiziozko urtea omen da aurtengoa. Karpapeak ezagutuko duen azkena. Datorren urtean eraikin berria estreinatuko dugu. Durangoko azoka aro berri baten atarian deitu genezake hurrengo istorioa. Baina benetan aro berri baten atarian dago? Ez dakit, nire zalantzak ditut. Azken urteotako historia etengabe errepikatzen ari den sentsazioa daukat. Bost egunez, jende uholdeak durangotarren bakea hausten, trikitixa doinuak inguruan, taloa eta txorizoa, azoka gunean liburuak eta diskoak txukun-txukun apaletan jarrita, kontzientzia txarra-ekin ez geratzeko zer edo zer erosi —noizbait karpatik egutegia besapean daramaten pertsona kopurua zenbatu beharko nuke—, eta etxera. Beste bat apalerako. Datorren urtean

gehiago eta hobeto. Amak kasu bixia kontatu zidan aurrekoan. Ba omen da merkealditan diren —ixtear dauden— liburu-dendetara doan jendea, eta kiloka erosten dituzte liburuak. «A zer pagotxa saltzaileentzat!», pentsatu nuen nik. «Bai, ez dakizu zeinen erraz apaintzen diren apalak horrela. Gainera, sofaren kolorearekin ondo doazen liburuak aurkitzen badituzu, pentsa zelako zorteal», esan zidan amak. *Glups*. Mundu honetan denetarik egon behar eta... Alabaina, zerk bereizten gaitu horrelakoak egiten dituztenetatik? En fin, atera zait urteroko erreto-rika. Baina tira, ez da oso azkarra izan behar aurtengo azokaren balorazioa zein izango den asmatzeko. El Corte Inglesek ez luke hobeto iragarriko. Iritsi da Durangoko azoka. 3




Berri gehiago: www.durangokoazoka.com

Durango02
Urteroko hitzordua

Abenduaren 4tik 8ra, ohitura denez, Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka egingo da. Aurtengoa 37. edizioa izango da, eta, hainbatetan gertatu den bezala, lekua aldatuko du azokak. Oraingoan, baina, aurreko urteetan karpa egon den tokitik oso paraje egingo da. Galtzerik ez, hortaz. 271 gune izango ditu azokak, iaz baino 26 gehiago. Liburu eta diskoak izango dira nagsi, baina egongo da, horiez gain, zer ikusi eta zer erosi gehiago: aldizkariak, bideoak... Gainera, teknologia berriei garrantzia eman gura izan diete Gerediagakoek, “etorkizunari begira ipintzeko”, euren berbetan.

liburuak



Azken hitzordua
Sándor Márai
Igela
Márai eslovakiarraren eleberraren itzulpena egin du Xabier Olarrak. Berrogeita bat urte elkar ikusi barik eman duten lagun biren arteko hitzorduarekin abiatzen da istorioa.



Metxa...
Koldo Izagirre
Elkar
1991n idatzitako eleberraren berrargitalpena. Metxa goitizena duen gizon baten hamaika pasadizo kontatzen digu duela hamaika urte zein gaur kritika onak hartu dituen liburuak.




Ipuin batean bezala
Joan Mari Irigoien
Elkar
Maitasun istorioa burutu du oraingoan Joan Mari Irigoien beterranoak. Bizitzan porrota pairatu duten gizon batek eta emakume batek elkar ezagutzen dute; bien arteko amodioa da eleberraren ardatza.



Zerezko zera...
Alaitz Olaizola
Euskaltzaindia
Izenburu korapilotsua duen antzezlan honek metroan bizi den gizon bat aurkeztzen digu. Protagonista sekulako saltan sartuko da, metrotik igarotzen diren pertsonengana lar hurbiltzeagatik.



Jokoa.com
Gemma Lluch
Erein
Istorio modernoa, gur egungoa dugu hau: posta elektronikoa, txata, internautak... Denetik. Azkenean, protagonistek asmatutako jokoak ordenagailutik errealitatera salto egingo du.



Zakurra zeure laguna
Gotzon Garate
Elkar
Txakurrenganako maitasunez eta ohorez idatzia da liburu hau. Era askotako berriak eta pasadizoak biltzen ditu obra zabal honek: txakurren ohiturak, heziketarako aholkuak, ezaugarriak...

TRUK

EUSKARAZ JOLAS ETA IKASI

AITOR IKASTOLAN

UMEENTZAKO ORDENAGAILUA

EUSKARAZ • INGELESEZ • GAZTELANIAZ

- 78 jarduera euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez
- Hiztegia, jolasak, marrazkiak, grafikoak,...
- Pantaila, teklatura eta benetazko sagua
- Pedagogoa eta hezitzaile adituek garatua.

6-9 URTE

59,90 €

AITOR SORTZAILE

AITOR SORTZAILE

- Idazkeraren eta irakurketaren sortzaile
- Kultura eta irakurketa
- Edukirik handiena ahozko euskaraz eta gaztelaniaz
- Sagu profesionala, benetazko teklatura,...
- 55 jarduera euskaraz eta gaztelaniaz
- Jokoak eta orduak
- Musika eta marrazketa

4,5

6,5 URTE

59,90 €

EUSKARAZ JOLAS ETA IKASI

DEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU ZURE ETXEAN

3,67 €

BIDALKETA GASTUAK

Lehen!

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

webgida



NORAD ETA SANTA CLAUS
>www.noradsanta.org


NORADeko teknikariek EEBBetako zeruei begira daude etengabe misil eta hegazkinen beldurrez. Baina, gabon gauean euren zeregina aldatzen dute. Urtez urte, Santa Clausen hegaldiaren berri ematen dute euren web orrialdetik. Bitxia da hain teknikari famatuak hone-lako trastokeriak egiten ikustea. Tradizioak mende erdi baino gehiago du, aurtengoa galduko ote duzu?
Hizkuntza: ingelesa

NONTZEBERRI
> www.nontzeberri.com

Pozik aurkitzen ditugu honelako webgu-ne fresko eta dotoreak. Musika, antzerkia, literatura, bertsoak... Internautek eurek bidaltzen dituzten ikusentzunezko, zein testuzko obrekin betetzen da elkar-lanean egindako webgune hau. Diseinua punta-puntakoa da, eta edukei heltzea ez da batere zaila. Arte forma guztietan zer berri den jakin nahi izanez gero ez ahaztu webgune hau bisitatzea. Argitu beharra dago, hasieran baino ez daudel-a, beraz, normala da atal asko bete



Testuak: **Iker Merchán** / iker@merchan.com



www.anonymizer.com

Zentsura guztien gaintetik

Sareak **hainbat lanabes** eskaintzen dizkigu **debekatuak** ditugun webguneak bisitatzeko

Hainbat arrazoi direla eta, zenbait webgunetan sartzea galerazita dago herrialde askotan. Hau esaterako, Frantzia, Alemanian edota Espainian gertatzen ari da.

Baina, badira oztopo hauek saihesteko aukera teknikoak. Errazena, *proxy* delakoa erabiltzea da. www.anonymizer.com du izena aukera tekniko ezagunenetako batek, eta gainera erabilera arrunterako dohainekoa da. Oso sistema erraza da: erabiltzaileak webgune horretan sartu, eta ezker aldean duen kutxa barruan bisitatu nahi duen web-

gunea idazten du. Une horretatik aurrera, internautaren aztarnak ia jarraitezin bihurtuko dira, eta bere Internet hornitzaileak (Telefónica, Euskaltel edo dena delakoak) jarritako harresiak baliogabe geratuko dira.

Diktadura bortitzenetan (Txina edo Tuzen, adibidez) ez dago sistema hau erabiltzerik, zeren eta *proxy* hauen erabilera ere galarazita dago. Baina, gure inguruan, baliagarri suete dakiguke. Nork berak erabaki behar du tresna honen bidezko erabilera egitea. m

Zer ote da? IP

Zure helbidea Interneten

Internetera konektatuta dagoen edozein ordenadorek helbide bat izan behar du. Nahitaez. Horri esker, informazio igorri eta jaso daiteke, informazioa beti “norabait” bidali behar baita. Azken finean, guk nabigatzailean www.edozer.com idazten dugunean, ordenadoreak serbidore erraldoi batean galdera bat luzatzen du: “zein IP zenbaki du edozer.com-ek?” Zenbaki edo helbide hori gabe ez dago Sarean ezer eskuratzerik.

Telefono eta modem arrunten bitartez Internetera konektatzen direnek ez dute IP bakarra izaten. Konektatzen diren bakoitzean, helbide berria erabiltzen baitute, beraz, oso zaila da euren aztarna jarraitzea. Baina, ADSL eta halako konexioak erabiltzen dituztenek kontuz ibili behar dira, askozaz errezagoa baita euren urratsak jarraitzea eta ordenadoreari erasoak bidaltzea beti-beti helbidea (IP) agertzen dute-eta. Beraz, ADSL baldin baduzu, beste konexioekin baino kontu handiagoaz ibili beharko duzu.

aurkitudugu

Eunate Serrano

Denetarik



<http://membres.lycos.fr/cat/1714/img/vascence.jpg>



Aparteko behia



Mukien aurka



Bilboko katua




Erretzailentzako iragarkia

Interneten irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hilabetero argitaratuko ditugu.
ukaldizkaria@telefonica.net

Gonzalo Iribarnegaray
idazle eta bidaiari getxotarraren eskutik

“Un mes en Bostwana”



Muñoz Moya editores

Eskatu zure liburudendan!

BILBOMICRO



“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213



Testuak eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**



MUNDUKO BAZTERRAK BOTSWANA

Okavango ibaiaren delta



Angolako erdialdean planetako bitxi bat den ibaia bat jaiotzen da, Okavango ibaia, hegoekialderantz abiatuta bere baitara ur kopuru ikaragarria biltzen duena. Geldiezinik itsasoaren bila aurrera doa bidean aurkitzen dituen oztopo guztiak gaindituz. Namibiara heldu eta herrialde hau iparraldetik zeharkatu ondoren Bostwanan sartzen da, errege baten moduan bere indar menperaezinean sinestuz. Hala ere, Afrikako eguzki sutsuaren pean etsai bat zain duela ez daki: harea beilegiko Kalahari-ko basamortu handia. Okavangok ezin dio bere indarrari aurre egin eta Botswanako muga zeharkatu eta kilometro gutxira bere urak 15.000 km²ko lur eremuan (Suiza bezalakoa) iragazi eta barreiatzen dira ehunka erreka, laku, putzu, padura eta tamaina guztietako irlak sortuz. Oasi bat da basamortuaren erdian, Kalahariko bihotzean bizitza eztanda multikolorea eta munduko barne deltarik handiena. Hantxe hiltzen da Okavonga, itsasoa sekula aurkitzen ez duen ibaia.



Okavangoren urek sarritan bideak estaltzen dituzte

4x4, mokoro eta kirol hegazkina
Ezagutzeko gogo biziz, nire *todoterrenoan* Maun hiriraino gidatu dut, deltaren ateraino. Leku hau ezagutzeko gutxienez astebete behar da. Aukera asko dago eta guztia egitea ezinezkoa denez, nire abentura deltaren ekialdean dagoen Moremi erreserba basatia bisitatuz hastea erabaki dut. Moremin fauna oso aberatsa da eta ikuspegiak paradisiakoak. Bostwana osoan bezala ez dago apenas errepiderik eta horregatik halabeharrez 4x4 batean joan behar hara. Egunotan Okavangok ur asko dakar eta bideak urez gainezka daude. Tarte batzuetan ura nire autoaren leihatilaraino heltzen da eta behin baino gehiagotan urpean geratu naiz. Piztiak (hipopotamoak, krokodiloak, antilopeak, elefanteak...) putzuetan bainatu eta

freskatzen dira; nik, bitartean, autoaren sabaiaren gainean zutik eszena gozatzen dut. Egun batzuk geroago deltaren mende baldera abiatu naiz. Inguru hartan lastozko teilatu konikoak dituzten txabola biribilez osatutako herriak daude. Jendea abegikorra

«Okavangok ezin dio Kalahari basamortuari aurre egin»

da eta bertakoein berba egitea eta egun askoan egotea gauza zoragarria da. Gazte baten laguna egin naiz eta berak eskualdeko bazterrik ezkutuena erakutsi dizkit. Maunera itzuli naiz. eta kanpamenduan lo egin eta gero, uretan barne abiatu naiz mokoro batean. Mokoroa Okavangoko un-

tzi autoktonoa da, pertika batez bultzatuta mugitzen den enbor hustu soila. Kanalak zenbaezinak dira eta naturarekiko fusioa sentitzen dut. Azken txangoa kirol hegazkin batean egin dut eta Hegoafrikako neska gaztea den pilotoak bere akrobaziekin ikaratu egin nau. Delta zerutik begiratuaz eskualdea bere osotasunean antzeman dut. Bizitzaren eztanda multikolorea basamortuaren erdian. m

«Itsasoa sekula ezagutzen ez duen ibaia bezala ezaguna da Okavango»

Okavangoren delta

- **Ibaia:** Okavango.
 - **Herrialdea:** Botswana
 - **Hiririk hurbilena** Maun.
 - **Zelan heldu:** Hegazkinez eta todorreno ibilbideak. Banoak eta Marco Polok bidaia hau eta ondoko beste herrialde batzuetarako beste batzuk eskaintzen dituzte: Zinbawe, Botswana eta Namibia.
- Informazio gehiago:**
- www.xtec.es/~rduran1/moremi.htm
 - www.discover-botswana.com/articles/okavango.php
 - www.driveout.co.za/botswana/okavango.shtml



HURBILEKO BAZTERRAK

Serantes mendia



Santurtziko portua Serantes mendiaren magalean dago

Abraren beste aldean, portuaren ibai ahoan bertan, guztiok ezagutu bai baina bisitatu ez dugun figura bat altxatzen da: Serantes mendia da. Bere 446 metroko tontorrean Ibaizabal itsasoratzen den bistarik ederrena goza daiteke. Mendi honetara igotzeko bide asko daude. Horien artean bada bat zig-zagean ahalegin txikia eginda mendiaren gainera garamatzana. Bidea Mamariga arrantzaleen auzotik abiatzen da eta hasieratik bistak paregabeak dira. Igo ahala gero eta ederragoak dira eta ikus daitekeen panoramika gero eta zabalagoa. Serantes mendiaren magalean eta baita tontorrean ere, badia defenditzeko gotorleku ugariaren arrastoak daude. Santurtziko udalak hauetako batean hotel bat eraikitzeko asmoa du, inguruan sor lezakeen eragina dela-eta protesta ugari piztu dituen. m

Zelan heldu

- Santurtzi atzean utzita eta Iberdrolaren zentralera heldu aurretik, Mamariga auzorako desbideraketatik bertatik abiatzen da bidea. Ondoren, han dauden kartekek ibilbide desberdinak adierazten dituzte.



Bertso-oskarrik: ahobiak

Algortako Bertsolari Eskola ez da Hollywood Zine Akademia, ALBEko bertsolariak ez dira Hollywoodeko aktoreak (guk gutxiago kobratzen dugu), baina ALBEk sortutako AHOBİ sariet badute zelanbaiteko antzekotasuna Hollywoodeko oskarrekin. Ondoko lerroetan bertsolaritza saritzea helburu duten garaikur hauen berri emango dizuegu.


Testuak: ALBE / Argazkia: Urtzi Azkorra - ALBE / Kartelaren diseinua: Aitor Zumalabe

ALBEren logoa

1995ean ALBEkook pentsatu genuen gure eskolaren ibilbidearen normalizazioan (eskola 1980an sortu zen) aurrerapauso bi eman beharrean ginela: batetik, legezko el-karte bihurtu eta, bestetik, logotipo bat sortu, gure eskolaren aurpegia izango zena. Eta halaxe egin genuen. Logoa Zuriñe As-teasu Ugalde diseinatzaile gasteiztarrek sortu zuen. Irudian bertsolari biren buruak suma daitezke, bata eskuinera begira, bestea ezker-rrera, ahoa zabalik dutela. Honen bitartez bertsogintzaren baitako dikotomia islatu nahi izan zuen Zuriñek: ofizioetako elkarren kontrako borroka dialektikoak, iritzi, joera eta estetika desberdintasunak, irekitasuna... Koloreek ere egundoko garrantzia hartu zu-ten. Urdina kolore hotzen gamakoa ei da, eta buru lan neurtuaren adierazgarri litzate-ke. Laranja, berriz, kolore beroen gamakoa dugu, eta bertso jardunaren alde grinatsu eta sentimenduzkoa emango luke aditzera. Atal biak elkarloturik ageri dira.

Logotik AHOBİra

2000. urtean ALBEk 20 urte bete zituen eta urteurren garrantzitsu hura betetzeko, logoa ikur bihurtzea pentsatu genuen. Lan hori Aitor Zumalabe diseinatzaile bilbotarrak egin zuen, Zuriñek sortutako logoari bolu-mena emanaz. Irudi sortu berriaren izenari buelta asko eman genion eta azkenean AHOBİ deitzea pentsatu genuen, gure uste-an, Zuriñek azpimarratu nahi izan zuen




dikotomia ondo biltzen zuelako. Bestetik izen laburra zen eta ahozkaterraza. Tarteko h-ak ere modernismo ukitu bat ematen ziola begitandu zitzaigun.

AHOBİlen galak

Lehenengo AHOBİ sariak 2000ko aben-duan banatu genituen, urteurrenaren erre-mate moduan antolatu genuen galan, Algortako Getxo Antzokian. Orduko hartan Euskal Herri osoko hainbat bertso eskola saritu genuen. Hurrengo urtean gure bertso eskualdeko hainbat bertsozale gogotsu saritu genuen, bertsozaletasuna saritu guran. Baina ordutik, hainbat AHOBİ banatu izan dugu, han-hemengo ekitaldietan. Aurrerantzean, baina, AHOBİAK urtean behin baino ez dira banatuko, urte amaierako galan, beti

ere. Eta sarigaiak Euskal Herri mailakoak izango dira, eta handik edo hemendik lotu-ra izango dute bertsolaritzarekin. Aurten, esaterako, bertsoen argitalpenari loturiko jendea sarituko dugu. Zazpi AHOBİ bana-tuko dira eta aurrerago jakinaraziko dira saridunak nor diren. Aurtengo AHOBİEN GALA abenduaren 21ean egingo da, Al-gortako Getxo Antzokian, eta 17:30ean hasita. Ez galdu ekitaldi original eta arran-ditsu hau ikusteko aukerarik. m



Iturria: XDZ



Solaskidearen SOSLAIA

Ondoko test erako galderei zuzen erantzunez gero, Peña bertsolari ezaguna hobeto ezagutuko duzu.

- 1) Zein dira Peñaren izen-abizenak?
- a) Anjel Mari Peñagarikano Labaka
 - b) Anjel Mari Peña Garikano

- 2) Ezkonduta al dago Peña?

- a) Bai
- b) Ez

- 3) Non jaio zen Peña?

- a) Albisturko Ostatuan
- b) Anoetan

- 4) Non bizi da egun gure bertsolaria?

- a) Anoetan
- b) Tolosan

- 5) Zeintzu lanbidetan jardun du?

- a) Esatari eta tartekari pilotako apustueta
- b) Liburu salmentan eta kafe-makinen alo-kairuan

- 6) Nola jakin zuten Peñaren gurasoek euren semearen lehen saioaren berri?

- a) Pentsaren bitartez
- b) Saioan bertan izan ziren

- 7) Zenbat bider izan da Peña finalista EHko Txapelketa Nagusian?

- a) Birritan
- b) Hirutan

- 8) Zein urtetan lortu zuen Gipuzkoako txapela?

- a) 1999an
- b) 1991an

Erantzunak: 1-a, 2-a, 3-a, 4-a, 5-b, 6-a, 7-b eta 8-b



10ekotxikian

Pe a

- 1) Pe a eta umorea beti al doaz batera?

Pe ak aldarte ona eta txarra izaten du tarteka. Esan daiteke umorea berezkoa duela, baina baita ere Pe a ez dela beti agertzen den bezain umoretsua.

- 2) Ibilbide polita egin duzu bertsogintzan. Atzera begira jarrita, zerbait aldatuko al zenuke?

Orokorrean ez daukat orain arte eginaren damurik, baina garai batean erre-kurtso faltan edo, gogor ekin nien bertsotan zenbait herritako apaizei, etahomosexualei ere. Orduan esandakoak orain ez nituzke esango.

- 3) Olano anoetarrak erretiroa hartu du. Pe a anoetarrak horrelako asmorik al du?

Oraingoz ez, baina gauza bat argi eta garbi daukat: jendeak zoaz esan baino lehen, banoa esango dut.

- 4) Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2002 jokatzten ari da. Busti gaite-zen, Pe a. Egin lehenengo lauren pronostikoa, eta baita txapeldunarena ere.

Lehenengo laurak: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Arkaitz Estiballes o Fredi Paia. Txapeldun Unai Iturriaga ikusten dut.

- 5) Bizkai aldean makina bat saio eginda zaude. Zer sentitzen duzu Bizkaian kantatzen duzunean?

Egia esateko, oso pozik kantatzen dut beti Bizkaian. Amurizarekin e-urtero-urtero izaten dut saioaren bat eta bizkaieraz kantatzen dut. Asko maite dut Bizkaia, eta ez Athleticzalea naizelako bakarrik.

- 6) Norekin kantatzen duzu gustosoan gaur egun?

Bitxia bada ere, zahar-zaharrak eta gazte-gazteak izaten ditut gustukuen kantatzeko. Esate baterako, Jose Agirrerekin eta Sustrai Kolinarekin nire belaunaldikoekin baino gusturago kantatzen dut.

- 7) Telebistan behin baino gehiagotan ikusi izan zaitugu. Onartuko al zenuke bertan lan egiteko eskaintzarik?

Ez. Euskararen edo bertsoaren inguruan prest egongo nintzateke kolaborazioen bat egiteko. Baina bestela ez. Gainera eskaintza mordo euki dut, baina ez naiz telebistazalea.

- 8) Nola ikusiko zaituzte 40 urte barruko gazte bertsozaleek?

Guk orain Lasarte ikusten dugun moduan, askotan ikusitako bertsolar bat bezala. Argal-argala eta berezi puntu batekin: denbora askoan ezkondu gabea, urdaileko gaitza .

- 9) Getxon eta Uribe Kosta aldean sarri kantatu duzu.

Nola deskribatuko zenuke hemengo bertso giroa? Inguru horretakoa hiritar bertsogintza da, bertso giro urbanoa. Nik desberdin kantatzen dut Nafarroako herri txiki batean, edo Algortan. Herri txikietan nekazaritza munduko erreferentzia gehiago egiten dut. Giro urbanoetan bestelako argotak erabiltzen ditut, beti ere erregistroa egokituz.

- 10) ALBEko bertsolari gazteenak Jone du izena eta 12 urte ditu.

Azkeneko UKan irakurri genuenez, zeu zaitu bertsolari idolo. Eskainiozu bertso bertsotxo hau bat-batean bota zuen telefonotik)

Hainbeste bertso edo / puntu eta neurri, maitagarri bada / Jone maitagarri, ta zein berba politak / guk hemen elkarri. Bizkaia ta Gipuzkoa / badira bi herri,



Peru kantuan, Nahikari atzean adi, Itxaso, Beñat, Jone eta Maialen, ALBEko etorkizuneko bertsolariak.

BEGI-BELARRI

San Martinetako bertso lapikoa

Algortan bada auzo bat izen bustia duena: Hezetasuna. Eta auzo horretan berorretan San Martin jaiak izaten dira urtero-urtero. Eta hezetasun horretan, perretxikoak legez, bertsoak, bertsozaleak eta bertsolariak sortu dira. Adibidez, Paiatarrak auzo horretakoxeak ditugu: Alfredo (Fredí), Xabier eta bizi-bizi datorren Itxaso. Kontua da bost bat urtetik hona bertsosaioa eratu ohi dugula auzo horretan San Martinen aitzakian. Aurtengo saioa bereziki emankorra izan da; izan ere, ALBEko gaztetxoak ipini ditugu kantuan.

Argazkiak: **Andoni Crespo - ALBE**



Kepa Arrizabalaga eta Roberto Etxebarria bertso giroa alaituz.



Adin guztietako entzuleak gaztetxoek bertsokin gozatzen.



Jagoba, Fredi, Katxo eta Aritz, hankak lurrean eta bertsoak buruan.



Aritz erasoan eta Jagoba bertso-pistola ateratzeko prest.



Nahikari Ayo gaijartzaile iaioa.



Tra-lara-lara... Ados? –Zein? Zein?



Aritzen eskuen eskultura.



Katxo eta Aritz jarrita, bertsolagunen bertsoak aztertzen.



HIRUSTA



Bertsojartzailea: **Galder Bilbao “Txapi”**
Gala: **San Martinetako saioa**
Hezetasun auzoan
Neurria: **6 puntuko berezia**
Doinua: **Aitzol de Kastrok erabilitako “Bilbo Zaharreko San Frantziskora...”**

1
Algorta herriko auzo txikian
–Hezetasuna alegia–
zenbait ordutan nagusi izan zen
berotasun ta argia;
haur ta gazteek, neska-mutilek
eman ziguten saria;
Nahikari zen gidaria,
bertsoa eta egia. (bir)
Peru, Maialen, Itxaso, Beñat,
Jone, piztuz suziria:
uzta emankorrek gertu direla
ta bermatuz miraria. (bir)

2
Lapiko bero dastaezinen
arteana abestu beharra,
Aritz ta Fredi plaza-gizonak
txapeldun handien erara;
indabena keak Jago, Katxori
emanez nahiko indarra;
saioa izan zen edarra,
gai-bertsoak barra-barra, (bir)
bermatzeko gaur bertsoa dela
esparru libre bakarra,
bertan bilduta izan genuen
atzoko ohitura zaharra. (bir)

3
Biztanle zintzoz osaturiko
auzoan egoera krudela,
hezetasuna urte guztian
giro bustia ta epela.
Baina latzena kanpotik dator:
trikornio jantzi ustela;
hausnarketa herrian dela,
urrun joan daitezela. (bir)
Orduan soilik gozatuko da
gizartearen bexamela,
plaza txikiek bertsoa handi
bihurtu egiten dutela. (bir)

Eguraldi kontuak

Zalantza barik, inoiz kaletar guztiok izan dugun egoera honakoa da: norbait topatzea eta zeren gainean berba egin ez jakitea, ezta? Horrelakoetan eguraldira jotzea normala izaten da –beharbada dagoen irtenbiderik onena–. Mundu hori, hemengo hizkeraz ezagutzeko abagunea da artikulu hau.

Testua: Andoni Llosa Erretratua: Asier Mentxaka



Justurik (tximistak) Algortako Portu Zaharretik ikusita neguan hartutako irudi batean

Haizeari dagokionez oso arrunta da men-debalderetik datorren haizea, euriaren barri ekartzen diguna, eta *galleguaxe* esaten zaiona. Kontrako aldean, hegoaldetik datorki-gun haize siku hori *axeierra* deitzen da, igartu edo lehortu egiten duelako. *Aurre-koaxe* edo *irrikoaxe* ere esaten diote. Ipar aldetik jotzen duen haize hotz eta batzuetan gogorra dena ere bai, *itxosoaxe* edo *norteko-axe* izenez ezagutzen da. Eta haize kontu hau amaitzeko, esan dezagun ekialdetik etorritako haizea, Pirinioetatik negu gogorretan

datorrena elurrarekin batera, *leiaxe* esan ohi dela, lehiak edo izotzak egoten direlako.

Negua

Neguan, gure kostaldean, ohizkoa izaten da *afrontu* gogorrak egotea, hain zuzen ere horrela esaten baitzaio haize eta euriak batera gogor jotzen duen eguraldi kaskarrari. Argi eta garbi dago *afrontu* hau sarriagotan agertzen dela neguan udan baino (negu, ude), baina *udebarri* eta *udegoien* urtaroak ere ez daude gaitz honetatik aske. Uda ge-

hienetan egoten da, ordea, egunen bat lar beroa, *sargori* itzela egiten duen egun horietariko bat; baina, zorionez edo zoritxarrez, negu guztietan ez da *edurrik* (elur) agertzen gure eskualdean. Gehienez ere, lantzean behin eta egun hotzenetan baino ez, txingorra datorku kaleak zuritzera, eta fenomeno honek badauzka izen ugari, hain hedadura txikerrean tokian tokiko berba edo erabilpen ezberdinak ematen dira modu ikaragarrian. Ezagunena *kaskaragar* hitza da, eta beste batzuk aipatzearren *abazuze* (haizea,

euria eta txingorra batera emoten direnean), *harri* (txingor handia) eta *txotor* (txingor txikerra).

Eguraldiaren eremuan murgilduta, ezinbestekoa da gure gainean dauzkagun jagole edo zaindari nagusien aipamen batzuk egitea. Alde batetik, sekula mobitzen ez den zerua daukagu, eta garbi-garbi dagoenean oskarbi esan beharrean *zeru argi* esaten zaio. Ordea, oskorri geratzen denean *zeru gorri* deitzen da.

«Gure berba batzuk dira: axeierra, afrontu, ababuze, eguzki txangot...»

Gauetz, gure parranda guztien zain *iretargi* (ilargi) ederra egongo da han goian, dagokion unearen arabera *iretargi bete* edo *iretargi barri* ikusteko aukera izango dugu, gure eskualde honetan hain nabariak diren *edoi* edo *odoi* eta *laño* astunek galazoten ez badigute, behintzat. Baina pentsatu dezagun mota horretako oztoporik ez dagoela, eta gaua pasatu ostean, egunez *eguzki ederra* agertzen zaigula begi bistan. Horrek ondo mereziko lituzke minutu batzuk, bederen, *eguzki begire* edo *eguzki hartzen* emotea, indar barriak dakarkiguz eta. Udako egun beroenetan *eguzki goriak* gogotsu joko gaitu baina neguko *eguzki epel* hori, ordea, sano eskertzekoa da duda barik. Horrez gain esan beharra dago baita, *eguzki txangot* esakunea bi zentzutan erabiltzen dela: alde batetik, egun eurisuetako aterruneetan irteten den eguzkia horrela izendatzen da eta, bestetik, haize gutxiko egun baten, eguzkiak gogor berotzen duenean modu berbera erabiliko da. m

Gure berba berberak

GURE? AZENTU (III)

Testua: **Xabi Bilbao**

Azentun ganerako bigarren kapitulun esan gendun esaldiko parte bakotxak azentu bet darola azkeneko silaban. Beste era baten esateko, esaldiko parte bakotxa azentuko unidade bat da (hau da, tonuk behetik gora iten dau horretariko parte bakotxan -ikusi azentuko lehelengo kapitulu-). Baia zer da “esaldiko parte bakotxa”? Azentun kontukez gauzela, esaldi betek parte nagosi bi dekozela esan lei: bat, “galdegaie” edo aditzen aurre-aurren doan informaziño, eta bigarrena, aditze eta aditzeaz batera doazen osagarrik.

Kasu baterako, *behingón heldu dá* esaldin, “behingon” da parte nagosi bet (galdegaie) eta “heldu da” beste bat (aditze). Horretariko parte bakotxan azentu bet marka du azkeneko silaban, azentuko unidade bat dala erakutziteko. Baia zer pasaten da esaldik elementu gehiau badekoz? Ba, berba asko ez badirez, galdegaien edo aditzen unidaden barrun sartzen direz: galdegaien aurreko berbak galdegaieaz, eta aditzen ostekok, aditzeaz. Kasu baterako:

Abendu behingón heldu dá

Abendu behingón heldu da aurtén

Abenduko hille behingón heldu daku guri aurtén

Gure aitzitxe eta amamari adi-adi entzun ezkeron holan berba eiten entzungo dozuez. Era horretan eroten dauz azentuk baiezko esaldi normal batek (berba azentubakok besterik eztekonen). Baia azentuko unidadek ez direz beti-beti bi bakarrik esaldi bakotxean. Sarri, esaldik berba asko badekoz, edo astiro berba ein ezkeron, azentuko unidade gehiau osotuten direz:

Abenduko hillé... behingón heldu daku... aurtén beré.

Gaurkoz nahiko da: zorionak, ondo pasa “abenduko hille” eta ondo hasi urtarille. m

uk

uk aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Euskara ikasten dute

Nagore Domingo (Leioa)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?
—Egia esan, beti ikasi dut “B” ereduan, baina euskaltegian lau urte daramatzat.
—Zein mailatan zaude?
—Seigarren urratsean hasi nintzen eta bi urte daramatzat EGA mailan.
—Non ikasten duzu?
—Leioako Udal Euskaltegian.
—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?
—Alde batetik EGA ateratzeak, baina beste aldetik, hizkuntza oso gustukoa dudalako.
—Zer da gehien kostatzen zaizuna?
—Batez ere ahozko probetan nahiko urduri jartzen naiz.
—Orain arte ikasitakoa erabiltzen duzu?
—Bai, nire bikote lagunarekin noizean behin euskaraz hitz egiten dut, baina etxean, esaterako, ez dut egiten, nire gurasoak ez dakite-eta. Lagunen artean nagoenean, nahiz eta batzuk euskara jakin, bakarrik egun jakinetan erabiltzen dugu.
—Zelan definituko zenuke euskara?
—Euskara oso gutxi egiten da eta pentsatzen dut euskara ikasten ari garenok aurrera eraman behar dugun hizkuntza dela. ^m



Lexonatik Leioara

Mikel Gorrotxategi *

Gure irakurleetako batek galdera zorrotz eta egokia egin du Leioa herri izenaz, ez etimologiaz, eremu labaingarri eta zaila baita, euskal idazkera zuzenaz baizik. Ezaguna denez erdaraz *Lejona* izan zen euskarak ofizialtasuna lortu eta udalak euskal izena den *Leioa* izen soila ofizialdu zuen arte (ene esker hona garai hartako alkate eta zinegotziei). Baina egindako galdera zera da, zergatik den *Leioa* eta ez *Lexoa*, lehenago *Lexona* ageri baita.

Argi dago bokalen arteko -n- galtzea ohikoa dela euskaraz Galdakao, Lazkao, Dorrao edo Miñao herri izenetan argi ikus daitekeen bezala, eta ez naiz luzatuko Sopela herri izenaz idaztean azaldu bainuen. Bestelakoa da x/y/j eratan idazten diren soinuuen arazoa.

Dakigun bezala gaztelaniaz egun ez dago -x- soinurik eta idazten den kasuetan (*taxi*, esaterako) -ks- ahoskatzen da (*“taksi”*). Ez zen hori gaztelania zaharreko egoera, garai horretan bazuen eta. Geroago gaztelaniaz soinu hori galdu zuen egungo jota (*jamón* edo *caja* hitzek daukatena) soinuaren mesedetan eta horren ondorioz x eta j idazkerak nahasi egin ziren denbora luzez bata zein bestea erabiltzen zela. XVIII. mendean, esaterako 1704ean Bizkaiko agintariek egin zuten Sutegian (etxe errolda zergak kobratzeko) Lejona ageri da eta 1799an berriz Lexona, herri izenaz ari direnean, baina beti Lejona etxeak aipatzean, A. Irigoyenek eta E. Olasok argitaratutako liburuan ikus daitekeen bezala.

Baina egoera nahasiagoa da erdarazko dokumentazioan ageri diren euskal izenez ari baikara. *Leioa* egun euskaraz mintzo ez den inguruan balego pentsa genezake euskaldunek *Lexoa* esaten zutela, baina zorionez (eta ahal izan dadila betiko) bertan badira euskaldunak eta guztiek, baita ingurukoek ere *Leioa* (antzinako erara *Leyoa* idazten zena), esaten dute. Zergatik ageri da, ordea, x-z? Erdara dela medio. Nahiz eta erdaraz idatzitako gure leku izenetan gure jota Europako gainontzeko hizkuntzen berdina izan eta gaztelaniaz ere egon (gogoan izan lehen y-az idazten genuena gaur egun j- idazten dugula hitz hasieran eta -i- hitz erdian baina berdin ahoskatu behar dugula: *yauregi* edo *yakin*, esaterako) batzuetan gaztelanieko jota-ra pasatu zela, batik bat hitzaren erdian ageri zenean (Goienola>Gojenola).

Labur esanda Lexona edo Lejona gauza bera da, euskarazko antzinako izena (eta antzinako esatean agian X. mendez ari gara) erdal erara idatzia, euskal erara Leyona behar baitzuen.

Eta esangura?? Auskalo. Ezaguna den etimologiarik zabalena leio+ona dela ezaltzen du. Argi dago edo hau eta Bartzelona Tubalek Noe-ren arka utzita Euskal Herriera zihoala lo egin ostean “Bart ze lo ona” esatetik datorrela esatea parekoa dela, biak xarmangarriak bezain zentzugabekoak. Litekeena da pertsona izen batean oinarritutako leku izena izatea, baina hori, beste historia izateaz gain, agian ez dugu inoiz argituko. ⁴

* MIKEL GORROTXATEGI NIETO EUSKALTZAINDIKO ONAMASTIKA SAILEKO ARDURADUNA DA

Belaunaldizbelaunaldi

Eskualdeko herri gehienek **Esadazu Euskaraz** kanpaina abiaraziko dute abenduan

Aurreko urteetan nor bere aldetik egin du, baina aurtun, lehenengo aldiz, Uribe Kostako herri gehienek (Getxo da bere kabuz egingo duen bakarra) modu bateratuan egingo dute hizkuntzaren transmisio kanpaina, “Esadazu Euskaraz” lelopean. Josu Esnaola Leioako euskara teknikariak azaldu digunez, Gabonetan gutuna bialduko zaie 2002an seme edo alabarik izan duten bikoteei, zoriontzeko alde batetik eta umeentzat euskara guraso- engandik jasotzeak duen garrantzia azpimarratzeko bestetik. Horrekin batera, opari bat eta bikote mota bakoitzarentzako (guraso biak euskaldunak, bat bai baina bestea ez...) aholkuak jasotzen dituzten orritxoak emango dituzte.

Era berean, laster aurrematrikulazio garaia datorrela-eta, umeak D ereduan matrikulatzeko gomendioa egingo zaie bost urtera arteko seme-alabak dauzkaten guraso guztiei. ^m



Xabier Solaetxe (argazkian, erdikoak) ikasle birekin

Bizarra Lepoan elkarteak antolatuta, DJ izateko ikastaroak egin dira Getxon. Berezitasuna da ikastaroak euskaraz izan direla, ez baita arrunta mundutxo horretan euskaldunak topatzea. Xabier Solaetxe izan da irakaslea, eta beraren etxean eman ditu eskolak; hamar ordu guztira. Parte hartu duten sei ikasleek *techno* eta *house* musika nahasten ikasi dute. Bejondeiela. ^m

EUSKAL SELEKZIOA

EUSKAL SELEKZIOAREN KAMISETA OFIZIALA



HELDUAK TALLA GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

51,03 €

EUSKAL SELEKZIOAREN EKIPAZIO OFIZIAL OSOA



KAMISETA,
GALITZA ETA
GALTZERDIAK

4 • 6 • 8 • 10
12 • 14 • 16

57,04 €

EUSKAL SELEKZIOAREN TXANDAL OFIZIALA



HELDUAK
TALLA
GUZTIAK

S • M • L
XL • XXL

108,00 €

UMEAK

8 • 10 • 12 • 14 • 16

96,10 €



DEITU ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN

BIDALKETA
GASTURIK
GABE

Leioa!

TRUK

902 45 12 12
IRUÑEA • EUSKAL HERRIA



gaizka escudero / villabotas-ekoa


Txangurroa

betiko erara

Hasteko txangurroa ur gazitan egosi (15 minutu). Bestetik, zartagin batean tipula eta piper berdea ondo txikituta sutan ipini bigundu arte. Gero, gehitu ogi birrindu apur bat eta saltsa ligatu. Ondoren, bota ardo zuria, fino apur bat eta txangurroak askatzen duen ura. Sutan eduki hau guztia, saltsa loditu arte. Gero bota tomate saltsa apur bat, Dijongo mostaza apur bat eta txangurroaren haragia txikituta. Dena nahastu eta sartu oskolean. Azkenik, ogi birrindu apur bat bota gainetik eta gero labean gratinatu. On egin! m

osagaiak

txangurroa • tipula • piper berdea • ogi birrindua
ardo zuria • finoa • tomate saltsa • mostaza



itsaso arana / jolastoki-koa

Kabak

jakin behar dena

1—**Mahatsa:** beste mahats motak batzuk erabiltzen badira ere, honako mahats motekin lortzen dira kaba onak: macabeo, xael.lo, parellada eta chardonay.

2—**Segituan edateko:** behin sotoetatik atera ondoren, edan egin behar da, ez baita gordetzeko. Hala ere, baldintza egokietan gordeta, argirik eta berorik gabe, ondo irauten du.

3—**Denbora:** kaba batek gutxienez 9 hilabete behar ditu egiteko, eta 30 hilabetetik gorakoa denean, Erreserba handia esaten zaio.

4—**Edateko:** koparik egokiena, txirula erako luzea eta estua da; beti behetik eutsi behar zaio.

5—**Botila zabaltzeko:** kortxoari eskuarekin heldu, eta botila astiro biratu. Kortxoa kentzean ateratzen den soinuari korrokada esaten zaio.

6—**Tenperatura:** bost eta zazpi gradu artean edatea gomendatzen bada ere, bederatzi gradutan be edan daiteke.

7—**Mota:** kabak azukre mailaren arabera desberdintzen dira: *Brut Nature*, honek ez dauka; *Extra Brut*, 6 gramo arte litroko; *Brut*, 15 gramo arte; *Extra Seco*, 12-20 gramo; *Seco*, 17-35; *Semiseco*, 33-50 eta *Dulce*, 50etik gora.



Meñakoz jatetxea

Aukera berria Sopelan



Ezkerrean Sergio González sukaldaria; eskuinean, Jon Mikel Vecín

Jeneralean ospe handiko jatetxeak ekarzen ditugu orrialde honetara; ospe handikoak edo, behintzat, zabalik urte asko daramatenak. Oraingoan, ordea, aurton bertan, maiatzaren 1ean hain zuzen, irekitako Meñakoz jatetxera jo dugu. Sopelan dago, eta Jon Mikel eta Aida Vecín neba-arrebek dute haren gidaritza. Biak ibiltzen dira bai sukaldean bai barran, denetarik egiten. Sukaldeko burua, hala ere, kontratatutako lau langileetako bat da, Sergio González. Diotenez, zezen isatsa da gozoen prestat-

zen duen jakia; *“okela ere ona izaten dugu”*, diosku Jon Mikelek.

Astegunetan eguneko menua ematen dute, eguerdiz; asteburuetan, berriz, menu berezia eta karta izaten dituzte. Karta ez da oso zabala, Jon Mikelek aitortzen duenez, baina *“kalitatezko gauzak eskaintzen ditugu”*. Bariku eta zapatu gauetan, eguerdie-tan ez ezik, gauetan ere ematen dute. m

MENAKOZ / Zubigane, Sopela
Menu arrunta: 12 euro / Menu berezia: 30 euro
Telefona: 94 676 88 22

barrak



Argazkian, Alberto González

Zeñe taberna

Erromon dago, Leioarekin muga. Barra, biribil laurden itxurakoa, pintxoz eta bezeroz beteta egoten da alderik alde taberna zabalik dagoen bitartean –goizeko 8etatik gaueko 10ak arte–. Alberto González ugazabak dioenez, *“batez ere goizetan etorten da jendea, gosaltzera”*. Duela 16 urte hartu zuen Albertok Zeñe, eta bera eta Lourdes Marrodan emaztea arduratzen dira pintxoak egiteaz. Gehienak tradizionalak izaten dira (era guztietako tortilak, bexamelez betetako piperrak, amarratza, kroketak, sandwitsak...), eta baten bat eurek asmatutakoa. Adibidez, hanburgesa txikiak. *“Semearen idea bat izan zen”*, dio Albertok, *“hanburgesazale handia da-eta!”*. Edozelan, betikoek nahiz berriek, denek dute ondo irabazitako ospea. Azpimarratzeko, amarratza, hau da, olagarroa. m

Zeñe taberna / Gobelaurre 13, Erromo / T: 94 464 84 74

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Erosketa etxera eroaten dogu!!
Ugari
supermerkatua
ORDUTEGIA
Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:30
Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO


TRUK
ardoak
«Luberri, dastaketan puntuaziorik altuena jaso duen ardoa, hitza batean esanda, sekulakoa da»
Bartolome Sánchez -Mi Vino- 2002ko urtarilla
Eskaintza Monje Amestoy-Luberri Upeltegietako Errioxako ardoa
Eskaintza 6 botilako erloa
Luberri Ardo Beltza 3 botila
Biba Ardo Beltza 3 botila
29,90 €
+ 4,44 € BIDLAKETA GASTUAK
Biba⁹⁸ Luberri
DEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN
EDO OPARITAN ZUK NAHI DUZUNARI BIDLAKO DIOGU
TRUK
902 45 12 12
IRUÑA • EUSKAL HERRIA

VILLABOTAS
JATETXEA

Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

AITOR ELOLA > Goizeko Kabi jatetxeko sukaldaria

“Niretzat garrantzitsuena nire lantaldea da”



Argazkian, Aitor Elola Goizeko Kabi jatetxeko atarian

Txikitan batzuk futbol jokalariai izan nahi duten moduan, Aitor Elolak, ez daki zergatik, baina sukaldaria izan nahi zuen. Beste batzuk ez bezala bere ametsari eutsi dio eta gaur egun Goizeko Kabi jatetxearen buru da bilbotar peto eta gazte hau. Honezkero Michelin izar bat eskegita daroa paparrean eta ez da azkena izango. Laster Goizeko Kabi markarekin etxera janaria eroateko denda zabalduko du Bilbon. Bere jatetxean hartu gintuen Aitorrek.

—Aitor, egizu zeure buruaren aurkezpena, mesedez.
—Gaur egungo sukaldaritzat jotzen dut nere burua. Sukaldeko lanak ere errazten eta aldatzen saiatzen naiz, batez ere langileak eroso, gustura (eta ez lehen bezala) egon daitezen. Bestetik, lehengai ona hobesten dut beti. Eta, azkenik, jatetxea Bilbon daukadala kontuan hartzen dut, hau da, nire bezeroak zaintzea gustatzen zait.
—Zenbatero aldatzen duzu karta?
—Urtean 200.000 aldiz (barre). Ohi bezala urtaroei aldatzen dut, baina aldi berean etengabe moldatzen dut. Asteazpi aldiz alda dezaket edo hogeit eguneko ikutu ere ez egin. Inprentan dirutza gastatzen dut. Sarritan langileek eurek ere, *Aitor, stop, nahikoa da!* esan behar didate. Izugarri gustatzen zait sukaldaritza, dibertitzen naiz, aldatuko ez banu aspertuko nintzateke. Sukaldaritza ezin da aspergarria izan. Berez lanbide gogorra da: lanaldi zatikatua, asteburuetan... Dibertitzen ez bazara, akabo! Beti lau plater egiten duen pertsona azkenean aspertzen da, beste ogibide bat bilatzen du.
—Bezeroekin egotera mahaira ateratzen

diren horietakoa zara?
—Lehen askoz gehiagotan egiten nuen. Ateratzen bazara ezin duzu pertsona bat atenditu barik utzi, guztiak atenditu behar dira. Eta azkenean ez dago eguneko hainbeste gauza egiteko denborarik.
—Goi mailako sukaldari batek, gaur egun ze arazo izaten ditu bere lana garatzeko orduan?

“Sukaldaritza berez lanbide gogorra da. Dibertitzen ez bazara... Akabo”

—Azpimarragarria da leku guztietatik eskaintzen diguten produktu mordo, ikaragarria da. Gauza asko ia eginda eskaintzen dizkigute. Askok aurreratu da eta badaude gauza oso onak baina baita oso txarrak ere. Horrela, etengabe aldatzera, berritzera bultzatzen gaituzte. Baina argi dago, bizitzan gauza guztiekin gertatzen den moduan, aldatetak edo berrikuntzak egin ostean beti atzera itzultzen garelako.
—Geuzaz Jan elkarteko kidea ere bazara?
—Duela urte pare bat Bizkaiko sukaldari batzuk elkartzen hasi ginen Bizkaiko sukaldaritza goi-mailaratzeko, gure lehengaiak... nolabait sartu nahi diguten hainbeste gauzari aurre egiteko eta aurrera eginez ere geureari eusteko.
—Ardoei buruz, zer da gaur egun azpimarragarria?
—Ikaragarria da azken urteotan sortu diren marka eta bodega mordoak. Nik izan ditut sei saltzaile ilaran euren ardoak eskaintzeko. Esan behar da oso modan daudela ardo gazteak. Bestetik, beste eskualde batzuetako ardoak sartzen hasi badira ere, Errioxako betiko lau-pabost marka horiek dira alde handiz gehien eskatzen direnak: Arana, Ardanza, Castillo, Alberdi... Hala ere, egia da jendea gauza berriak probatzeko irekiagoa dela gaur egun.

—Sukaldari moduan zein da zure helburua?
—Zoriontsu izatea (barre). Ni eta nire lantaldea, jakina! Urte asko dira elkarrekin gabiltzala beharrean eta niretzat garrantzitsuena da. Harrokeria barik eta harro esan dezaket, niri ez didala sekula inork alde egin. Oso argi daukat: inguruko jendea, nire lantaldea ondo zaintzea garrantzitsuena da niretzat.
—Etxera eroateko janari egina salduko duen denda zabalduko duzu laster.
—Bai, Goizeko Kabi marka izango dute jakiek, hau da, jatetxean dugun kalitate maila bera izango dute. Denboraz estu dabilen jendeak prezio onargarri baten truke janari on batekin gozatu ahal izatea nahi dugu. Eta jakina, pizzeekin eta hamburgeresekin apur bat lehiatu (barre).

“Errioxako betiko lau-pabost marka horiek dira alde handiz eskatuenak”

—Prezioak aipatu dituzu, goi mailako jatetxea da zurea eta ohi ez bezala prezio egokiak eskaintzen dituzula esaten da.
—Nahi dut hona jende guztia etorri ahal izatea, ez bakarrik aberatsak edota urtean behin diru estra bat jaso dutenak. Diru gehiago irabazi nezake beste era batera, jakina. Nahiago dut bai bezero eta baita guretzat ere prezio egoki batean eskaini gure lana. Nire izateko era da.
—Mundu mailan kilometro karratuko Michelin izar gehien dituen lurren da Euskal Herria. Zergatik gertatu da hori?
—Gauza askogatik baina, nire ustez, arrazoi nagusi bat dago: hemen jendea langile fina da. Kanpoan ere behargin onak izatearen ospea daukagu, sukaldaritzan eta arlo guztietan eta horrela egin da herri hau. Bestetik, lurra produktu itzelak ematen dizkigu. Eta, gainera, gurean ikasteko jakinmin handia dago. m

Norte jatetxea

adituak gara
makailo eta
kazolatxoak
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Arasa

Sukalde eta Komunitarako
Ekipamendu Osoa

Barnekaldeen zaharberritzeak
eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
GETXO

GAVRKO

GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR -

T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONoz!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

ITXASGANE

prentsa ¥ aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA

Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21

ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)

T:94 430 69 42 /ALGORTA

CALENDOS

RIKI

UMEAK-GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543 - AREETA

TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA (Abenduak 21 urtarrilak 19) Hemendik hara, handik hona. Geldituko ote zara behingoz? Ia ahaztu duzu zein den zure etxea. Hainbeste egun eta gau etxetik kanpo, zeure inguruak arduratuta dituzu. Hobe zenuke zure ihesaldien zergatien berri ematea.	OTSOA (Urtarrilak 20 otsailak 18) Hamaika ikusteko jaioak gara, baina zurea gehiegizkoa da. Joera duzu denek zentzugabe ikusten dituzten gauzak egiteko, baina zeure burua errealizatuta sentituko duzu, diote-nak ez dizu kalterik ekarriko.	ADARRA (Otsailak 19 martxoak 20) Noiz lasaituko zara? Gero eta urduria-go zabilta eta zure osasunak jasango ditu honen ondorioak. Naturarekin harremanetan jartzea komeni zaizu, aire freskoa eta garbia arnastu lagun!
AITZURRA (Martxoak 21 apirilak 19) Bakardadea izango da zure lagunik fideleena, besteekiko erakusten duzun koraza-babes horrek kalte izugarria egiten dizun bitartean. Egoera hau gainditzeko laguntzeko ahaleginetan dabilteza maite zaituzten pertsonak.	HOSTOA (Apirilak 20 maiatzak 19) Zure sentimenduak baztertzen saiatzea zilegi da, baina ez zaitu inora eramango. Ohartuko zara denborak aurrera egin ahala. Osasunak mugimendu pixka bat eskatzen dizu ozenki eta hara! Zu entzungor egiten!	EGUZKIA (Maiatzak 20 ekainak 18) Bizitzan gauza gogorrak gertatzen direla ezin da ukatu, baina zu edozer gauza ikusita ere segituan hunkitzen zara. Bigunegi duzu bihotza eta horrek, aldatu ezean, arazo asko eragingo dizkizu.
GARIA (Ekainak 19 uztailak 18) Aspalditik desio duzun gauza hori oparitu beharko zenioke zeure buruari. Zergatik ez? Egin duzun lan gogorra besteek ez badute baloratzen, ez arduratu! Ez duzu besteen onarpena behar.	LASTOA (Uztailak 19 abuztuak 17) Familia adiskidetzeko egiten dituzun ahaleginek fruitua emango dute, baina ez zuk espero zenuen bezala. Izan ere, egoerak okerrera egingo du eta dena pikutara bidali nahi izango duzu. Ez dago irtenbiderik, eutsi goiari!	IRATZEA (Abuztuak 18 irailak 16) Zure iritzia aldatzea ez da lan makala. Gauza eta pertsona ugariet buruz dituzun kontzeptuek aurreiritzietan dute sustraia. Honek pertsona asko ezagutze-ko aukera galtzea ekarri dizu.
META (Irailak 17 urriak 16) Txutxu-mutxuka ibiltzea gustukoa duzula badakigu denok. Inoiz gainontzekoen bizitzan muturra sartzeak bere kalteordaina ekarriko dizu. Oso garai ona da bidaiaitzeko, ideia berriekin etorriko zara eta.	HAZIA (Urriak 17 azaroak 15) Konfiantza gehiegi duzu pertsonengan eta maiz gertatu zaizu huts egin dizute-la. Lagun batzuentzat interes propioak edozein adiskideren aurretik daude. Benetako lagunak zeintzuk diren ikusi beharko zenuke.	NEGUA (Azaroak 16 abenduak 20) Beti iniziatiba zeuk izan behar duzula uste duzu eta, horrela, ekintzen erantzukizuna zure gain gelditzen da. Ikasi beharko zenuke besteak ere erabakiak hartzeko gai direla eta horrela arazo gutxiago izango duzu.

mungia

oKINDegia

Algortan badaukagu

artisaunen ogia

izen eta jatorriz

da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu

obispoen guleria

probatu bada edo ez

dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076

ALGORTA

Lur planeta. Lurreratzen. Kamargarden eta azken atala

Apurka-apurka burua galtzen ari naiz, bihotz gabe izan zuzuk etxetzar batean gurutzaturik hiltzen utzi ninduzenetik. Mentalki Jainkoari erregu egiten diot: ateratu zure burua zu hemendik! Eta zin dagit, ez naiz berriro telefonatu. Hainbeste arnasestuka arituko adinez txikikoekin. Nire otoitak zure saria izan duela ematen du eta sega bat dardan figuratzen du. Hainbeste beltz bat azaldu HERIOTZAdela dio. Nik txantxatan, hainbeste lanabesagatik, nekazari baten antza duela erantzutzea nahi diot. Antza gustatu zaio txantxa. Biok gogotik egiten dugu barre, HERIOTZAk aurpegian ukabilkada ederra eman didan arte. Garrantzizko abotsarekin -bestalde- zure eraman behar nauela esan dit. Zalantza-existentiala datozkit gogora eta nire haginak dardarka hasi dira. Jainkoarren! Bada besterik bizitza honen ondoren? Bada horrela bada, hiriko erdigunetik urrun dago? Jainkoaren!

...Horregatik hain zuzen ere beti ederto egin izan dut lo gauez, baina antza, zure buruak izan ez direnak, gauez gehiago dibertitu omen dira. Baliteke, gizakiaren burua horrekiko zalantza guztiak, mundu horrek, Lurrean dituen ordezkariegatik izateko hauei ez diet inoiz jaramonik egin faszikulutan saltzen baitute euren burua gehiago. Soluzioa: JAINKO bat baino, jainko asko direla uste dut. Eta horrela ulertzen da sekula ados jartzen esaterako, munduko goseteak, gizonen arteko gudak edota nekazariak konpontzeko. Heriotza ailegatzen zaigunean azaltzen zaizkigun beldur hauei lirateke hain larriak izango, heriotza hain ikaragarria ez dela ulertuko bagenu.

Baina halabeharrez galdu dut, izan ere, nire eskuak egurrezko gurutze batean iltzaturik daude. Eta ezin ditut bosteko multiploak baino erakutsi. Gauzak bere onera ekartzeko, HERIOTZAren azal zurixkarekin txantxatatu hasi naiz eta Solarium batean joatea gomendatu diot. Barru egin dugu. HERIOTZAk atzeratu bota dit ukabilkada bat aurrera. Bat-batean txori zoraia bat ikusten dut nire oinpetan eta aurpegian honek jo nautela ulertu dut. Eta hau guztia zure buruaren zoraldia izan dela jakin dut, gurutzaturik egozta.

uk

● zure **dirulaguntza**
behar-beharrezkoa
dugu!!!

●

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

●

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

irabazi bi lagunentzako menu bat GARDOKI Jatetxean



Nor da?

- **Bilbon, Valentzian eta Bartzelonan bizi izan da**
- **Aretxabaletakoa da.**
- **Gaur egun bulego batean egiten du lan.**
- **Bere bizitzako pozarik handienetakoa Wembley estadioan hartu zuen.**

> Aurrekoaren erantzuna: Mikel Laboa

> Irabazlea: ***Jasone Ibarra Markaida (Getxo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37



Gardoki Jatetxea

*Mendieta kalea 47
Sopela*

*Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita*

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31



Bittor Egurrola

Algortarrak Plentzian, 1968. Abenduaren 25ean Plentzian txikiteoa egiteko ohitura zuten lehen Algortako lagun taldeek. Gero bazkaltzera etxera itzultzen ziren. Laster, argazki hau hartu zela 34 urte beteko dira. Argazkian lagun talde bi azaltzen dira, hantxe Plentzian egin zuten topo biek. Areatxu (gazteak) taldeko kidea zen Emilio Zaldunbidek (GB) egin zien fotografia, Plentziako portuaren sarreran. Areatxu lagun taldea Algortako plaza ingurukoa zen; nagusiena, berriz, Portu Zaharrekoa. Gazteenen koadrilakoek Plentzian hasi, Sopelan jarraitu eta Algortan amaitzen zuten ibilbidea, gitarra eta kantuak lagun.

Lehenengo lerroa: Juan Basterretxea “Juanero” (GB), José de los Heros, Aure González (GB), Julio Jaen “Kutxu” (GB), Joseba Bueno “Kotxebas”, Patxo Zarraga, Javier Bueno, Luisje Saitua / **Bigarren lerroa:** Iñaki Ortiz “Gros”, Tanasio Franco, Tomás Lekanda, Pedro Zelaia, Joserra Elorriaga, Josetxu Lekanda, Juanjo Sarria, Mikel Zabala, Iñaki Sarria, Jaime Aio
Hirugarren lerroa: Bernardo Agiriano “Txato”, Jaime, Armando Amutio (GB), Angel Mari Astorki, Agustín Martínez “Pipas” (GB), Jagoba Deusto, Venancio Roggero “Diablo” (GB), Karmelo Amuriza

ESTITXU FERNANDEZ > telebistako aurkezlea

“Txarrerako zein onerako oso pasionala naiz”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...

Txarrerako zein onerako oso pasionala naiz. Baita nortasun gogorrekoa ere.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Batzuetan hagitz haserretzen naiz, nortasun gogorra izatearen ondorioz. Hala ere, adinarekin hau kontrolatzea lortzen hasi naiz.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...

Ikastolarekin zerikusia daukana: lagunak, anai-arrebak...

Zein da gehien miresten duzun pertsona?

Ez naiz hagitz mitozalea, baina mirestekotan emakumeak orohar miretsiko nituzke, emakume anonimoak.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?

Gauza politak erran dizkidate kaletik, e-mailez, eskutitzez... Batez ere lausenguak dira, begirada, irriarekin zerikusia dutenak. Baina lana ondo egin dudala edo pertsona ona ematen dudala entzutea, piropoak baino askoz gehiago gustatzen zait.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?

Niri ez didate zuzenean horrelako komentariorik erraten eta kritika zorrotzik ez didate erran. Normalean itxurarekin zerikusia dutenak batez ere, hala ere ez diet garrantzi handirik ematen.

Abestirik gustukoena?

Garirenak, orain Sabinaren musika entzuten dut, baina batez ere *Hertzainak* taldearen edozein abesti.

Zein da zure libururik gogokoena?

Isabel Allenderen guztiak irakurtzen ditut, baina John Kennedy Toolen *La Conjura de los necios* oso gustuko dut.

Eta film bat?

La buena estrella, eta ikusi dudana azkena *Los lunes al sol*, irri eginarazi zidalako momentu batzuetan, baina beharbada ikusten ez dugun errealitate bat dagoela erakusten digulako.

Zein lelorekin egiten duzu bat?

Esaterako, Euskal presoak Euskal Herrira.

Zertan edo norengan sinesten duzu?

Koherentziaz funtzionatzen duen jendearengan batez ere.

Zerk ematen dizu beldurra?

Heriotzak ikaragarri. Gaizki pasatzen dut horrekin, baina pixkanaka-pixkanaka kontrolatzen ari naiz.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?

Maite nautenek egiten naute zoriontsu. m

ESTITXU FERNANDEZ- Lesakakoa izan arren orain Donostian bizi da 27 urteko neska hau. Psikologian lizentziatuta da, baina aurreko ikusentzunezko lizentziatura burutzea erabaki du. Nahiz eta psikologiarekin zerikusia zeukan lanbidean aritu, kasualitatez, bere herriko telebistan hasi zen lanean, eta gaur egun ETBko *Bexamela* eta *Sorginen Laratza* programetan egiten du lan. Bertsolari fina ere bada; orain apur bat alboratuta eduki arren, ez da horren denbora luzea gure Estitxu Euskal Herriko edo Nafarroako txapelketetan zein plazarik plaza aritzen zela.